

Hitz beste

Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseinak

Adio, Jonas

Juan Kruz Igerabide
Ilustratzailea: MIKEL VALVERDE
Aizkorri, Bilbo, 2007

Gero arte, Jonas


1998an Igerabidek eta Valverdek hiru urteko mutikotxo baten istorio bitxia azaldu ziguten, hozkailuaren dardararen aurrean gogoeta egiten zuen mutiko hura Jonas zen eta urte gutxitan klasiko bat, pertsonaia ezaguna bilakatu da gure letretan.

Adio, Jonas hau ez da —ez du zergatik izan behar— protagonista horren azken obra, izenburuak kontrakoa adieraz badezake ere. Alde horretatik paratestuak (Genetenen arabera) okerrera eraman gaitzake; ez da Jonasen amaiera, ez horixe... baina izan zitekeen.

Izaba Pauliren urtebetetze eguna da eta Jonasek opari bat eman nahi dio; amak, ordea, igandean emango diotela azaltzen dio mutikoari. «Igandean... ba, ba... ez. Ez da itxura» pentsatzen du Jonasek, buruari hazka eginez, «Gaur behar du» (7. or.) pentsatzen du Jonasek, eta arratsaldean salto batean izebaren etxera joan eta oparia ematea bururatzen zaio.

Jonas larri ipuinean gertatu zen bezala, hemen ere egoera korapilatzen da eta momentu bateko kontu sinplea zena une larria bilakatzen da. Jonas, galduta, kaleetatik ibiliko da oinez, korrika, autobusean... norabide garbirik gabe, eta hasierako mutiko alai eta animosoa, etsipenak jotako mutiko bihurtzen da; egindakoaz poz egotetik damutzerara pasatzen da Jonas, tartean beldurra eta bakardadea ezagutu dituelarik.

Idazleak gertakariak eta Jonasen gogoetak tartekatzen ditu irakurlea protagonistarekin identifikatzea lortuz. Horrela Jonasen pena sentituko dugu oparia ezin diolako eman ize-



bari, eta baita bat etorri Jonasekin izebaren etxeraino joan-etorri azkarra bururatzen zaionean. Ekintza eta bizitasun handiko pasarteak da: «Ama baino azkarrago itzuli nahi du Jonasek. Salto batean jaisten ditu eskailerak, kutxatxoa poltsikoan duela, salto batean irteten da kalera, eta ziztu bizian doa espaloian zehar. Kale bat, beste bat... lasterka, tope». (12. or.)

Galdu ondoren, autobus gidariarengatik ihesi doala, bizitasunetik geldotasunera pasaten dira Jonasen animua eta narrazioaren erritmoa: «Jonasen bihotza bularretik irten beharrean dago.

Ezin du arnasarik hartu. Ezin du, ezin du, ezin gehiago». (24. or.)

Sentimendu, identifikazio, irakurketa horren eboluzioan testua bezain garrantzitsua da irudietan ageri dena; irudi guztia betetzen duen hasierako Jonas irribarretsuaren ondoren nortasunik gabeko pertsonak ageri dira (hankak bakarrik marrazten dizkie Mikel Valverdek), baina Jonas zenbat eta galduago egon orduan eta txikiagoa ageri zaigu eta orduan eta jende gehiago inguruan, berari begira. Alde honetatik guztiz txalogarria da

Valverdek eginiko lana, ohi bezala ederki islatzen baitu narrazioaren tonua eta istorioaren nondik norakoa.

Istorioren amaiera zorionsuak herri ipuinak ekartzen dizkigu gogora eta ipuin hauen azterketa psikoanalitikoak (B. Bettelheimen teoriaren arabera). Grimm anaiei Hansel eta Gretel ipuinean bezala, hemen ere protagonista galdu egiten da baso modernoan —hirian—, eta herri ipuinean jazo bezala, hemen ere amaiera zorionsuak irakasbidea eskaintzen digu, bai eta beldurrei aurre egiteko tresna berri bat ere. Horrez guztiaz gain, ipuinari amaiera ematen dion Jonasen gogoetak, «Ez da hain erreza salto batean itzultzea», lehenengo obrarekin, *Jonas eta hozkailu beldurtia* ezagun harekin egiten du jolas, orduko hartan ere bakarrik geratu zenean (etxean, kasu hartan) «banator salto batean» esanez joan baitzen ama... eta asko berandutu zen. Oraingo honetan, aldiz, Jonas da salto batean itzuli nahi zuena.

Izaba Pauliri eman nahi zion oparia Jonasek, eta kostata, zenbait abentura bizi ondoren, oparia ematen dio. «Adio, Jonas [...] Eskerrik asko opariagatik» (35. or.) dio izebak; guk, ordea, honako hau: «Eskerrik asko, Jonas, gero arte».

Xabier Etxaniz Erle

Goazen!

Charlotte Dematons

Itzultzailea: BAKUN ITZULPEN ZERBITZUAK

Tarttalo, Donostia, 2007

Bizitza jolasa denean

Teresa Duran idazle eta irakasleak komentatzen du haur txikiak irudiak «irakurtzen» ikasten dutenean beraiekin egon eta akatsetatik ere ikasi egin behar dela, barre egin, gozatu.

Charlotte Dematons ilustratzaile eta idazleak eginiko *Goazen!* hau horretarako oso aproposa da. Narratzaileak –testu pittin bat baduelako irudi liburu honek–, mutiko batek, etxetik irten ondoren lorategia gurutzatu behar du fruta dendaraino joateko. Hogei metro eskaseko tarte hori abenturaz beteriko ibilaldia bihurtzen da. Eta hain zuzen jolas hori, narratzaileak, protagonistak egiten duen jolas hori eskaintzen zaigu liburu honen orrietara hurbiltzen garen guztioi.

Liburuko irudi guztiek orri biak hartzen dituzte, Salisburyk bere *Illustrating Children's Books* obra interesgarrian adierazten duen bezala, ikusirakurketa eta denboraren tra- taera bisualean laguntzen duenari.

Izenik gabeko protagonista dugu eta alde horretatik guk geuk jar diezaiokegu izena, izan ere berarekin batera biziko ditugu hainbat abentura, berak bezala guk ere piratei aurre egin, itsasoa zeharkatu, harkaitz artean edo hondartzetan egon beharko baitugu. Identifikazio hori errazago egiteko egileak ez du daturik ematen, irakurleak erantsi beharko dizkio, bere interpretazioarekin aberastu eta hurbildu egingo du abentura. Gainera, protagonista ez dago bat ere zehaztuta. Arestian mutiko bat dela esan dugu, baina ziur aski neska bat dela ere esan genezake berdin-berdin, irudi guztiak urrutitik eta oso angelu berezi batetik hartuak izan direlako narrazio honetan.

Bai, hasieran, albumaren hasierako irudian, auzoko ikuspegi orokorra dugu, goitik hartuta, helikoptero batetik ikusten egongo bagina bezala (eta honetan ere mass-medien eragina nabarmena da, hau-

6+



rrentzako liburuetan gero eta ohikoagoa den eragina). Narrazio guztia goiko puntu horretatik, helikoptero baten barruan bagina bezala, ikusi ahal izango dugu.


«Tira! Goazen sagar batzuk erostera» esaldiarekin hasten da kontakizun hau, eta irakurleari zuzentzen zaion narratzailea hurrengo orrietan ikusi ahal izango dugu; ondoren aurkeztuko zaigu: «Elastiko gorria jantzi dut. Jarraitu niri». Gonbidapena da, berarekin ibilaldi miressgarria egitera, eta berarekin zailtasunak, beldurrak, oztopoak... gainditzera; baina baita jolas egitera. Irudietan, basoan barrenean esaterako, («Eta herensugerik badago?») herensugeaz gain azeria, txano gorria duen neskatoa otsoarekin hizketan eta beste animalia batzuk ikusiko ditugu kontakizun honetatik bestelako ipuin eta narrazioetara eramaten gaituztenak etengabe ibilaldian zehar. Beste obra horien oihartzuna, transtestualitatearen erabilera hori, gure baitan dago. Piratak *Altxor uharteko Silver* gaiztoa eta bere lagunak izan daitezke, herensugeaz gizon harrigarriek hilko dutena... baina aukera horrek, zalantza barik, aberasten du liburu honen irakurketa.

Charlotte Dematonsek, gainera, koloreekin jolasten du tentsioa, itxaropena edo bestelako sentsazioak eman nahian.

Baso ilunetik abiatuta hondartza argira, eta berehala, ibilaldiaren amaierara iritsiko baikara protagonistarekin batera eginiko ibilaldian.

Ez da hori, baina, ilustratzaile honek eskaintzen digun azken jolasa. Hasiera eta amaierako eskenatokia berbera baita, auzoko ikuspegia... baina aldatuta. Denborak aurrera egin du, garbitzen ari ziren paretak graffiti bat du orain; zuhaitza moztzen ari ziren langileak orain... edo arrantzan ari den pertsona... badira hasieran gauza bat egiten ari diren hainbat lagun, amaieran beste zerbaitegiten ari direna. «Bilatu ezberdintasunak!» esan zezakeen narratzaileak. Baina ez, horren ordeztu fruta dendatik etxerako ibilaldi berria proposatzen digu orain!

Xabier Etxaniz Erle



Gerlari Handia

Pello Añorga

Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA

Pamiela, Iruñea, 2007

Gerraren arrazoiak

Ikusteko beranduegi da, baina iazko World Press Photo sariketako berrehun bat argazki ikusgai egon ziren Gasteizko Montehermoso gunean, asko eta asko gerretan ateratakoak, gehienetan gordinak, oso gordinak. Haiek dardar artean eta izularrituta ikusten aritu zen ume batek, batik bat Iraken egondako soldadu itxuragabetu baten eta haren ezkongaiaren arteko eztei argazki zirrargarria ikusitakoan, honela galdetu zion andereñoari: «Emadazu arrazoi bat gerra egiteko». Baina andereñoak arrazoirik ez... Halakoetan, oster, zorionez ipuinak izaten ditugu eskura. Esate baterako, *Urrezko giltza* liburu-diskoan jasota dagoen «Ezti tanta» ipuin laburra: ehiztari bat mendira joan zen, haitz tartean ezti bat topatu zuen eta, hura zahagi batean sartuta, merkatura joan zen, baina eroslea topatu zuenean, ezti tanta bat lurrera jausi zitzaion, eta hara txori bat hurbildu zen; baina merkataria eta txoriak txoriak oldartu zitzaion, eta ehiztariaren zakurra mitxinoari, eta orduan, amorraziok hartuta, ehiztariak merkataria hil zuen; ipuina honela amaitzen da: «Merkataria herri


batean bizi zen eta ehiztaria beste batean, eta hilketaren berri izan zutelarik, bi herriek armak eta gerra tresnak hartu, eta elkarri egin zioten eraso. Bi aldeen borroka odoltsua izan zen eta ezpatak ukaldika ibili ziren harik eta denak hil ziren arte».


Gerraren arrazoiak buruzko galderetarako erantzunik gabe geratzen garenean, dagoeneko eskura ditugu Meaberren *Urtebete itsasargian*, Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* edota Igerabideren *Bagdadeko aurpegiak* —askoz gehiago ez dira—, denak ere gazteentzat, baina haurrentzat aurretzean eskura dugu Pello Añorga eta Jokin Mitxelena *Gerlari Handia* albuma ere. Idazleak aitortu zuenez, ideia Bagdadeko bonbaketak eragin zion, eta hortik garatu zuen *Gerlari Handiaren* istorioa: gerla guztiak irabazitako gerlari bat mendira joan zen eta, elurra hasi zuenez, haitz tartean kobazulo bat topatu zuen —Platonen oihartzuna entzun daiteke espaziotzat aukeratutako paisaia horretan—, baina barnean bazen mamu bat, gerlaria bezalaxe gu ere ezustean harrapatuko gaituen mamu ikaragarri eta garaitezin bat...; laburpen honetan, oster, ezin ipuinaren amaieraren berri eman...; beharbada esan daiteke testua oso idazketa garbian, laburrean, eraginkorrean gauzaturat datorkigula, eta irakurketa asko eskaini ditzakeela, hainbestearino non komedia edo drama moduan irakur daitekeen.

Ilustrazioek ere berebiziko indarra dute eta, ia etengabe nagusitzen den —elurra— zurian horia eta beltza nabarmentzen dira, ilustratzaileak ohituak gauzkan kolore asko paletan utziz. Mitxelena *Gerlari Handia* hitzak dira: «Gerlari kriminala irudikatu nahi nuen, horregatik horiz eta beltzez margotu nuen, zenbait animaliak, arrabioak bezala, kolore horiek erabiltzen dituztelako mehatxu egiteko». Eta gerlariak benetan transmitzen digu indar hori, izugarrikeria hori; gainera, ekintzak oso ondo lortuta daude eta, hitz batez adieraztearen, hitzaren eta ilustrazioaren oreka bikaina da. Añorgaren hitzak dira: «Ilustrazioak harantzago eraman behar du testua, ez dago testuaren mendean. Testuak, era berean, honutzago ekarri behar du marrazkia. Biak banaezinak direnean, orduan da albuma».

Eta album honek iazko **1. Etxepare Beka** jaso zuen, hain zuzen ere haurrentzako irudi liburuak bultzatzeko sortu zena Nafarroako hainbat udalerreri eta euskara mankomunitateri esker. Gogoan dugu lehenago sari hau helduen literatura eta haur zein gazte literatura bultzatzeko eratu zutela, baina gaur egun soil-soilik haur albumetara zuzenduta dago. Eta benetan pozgarria da hutsune hori betetzen hasteko aukera eskaintzen digulako, eta bai Pamielari esker bai Galiziako Faktoria de Libros argitaletxeari esker albumak gaztelaniaz eta galegoz ere argitaratzekoak direlako (*O Gran Guerreiro*/*El Gran Guerrero* lan hau kasu).

Laura Sagastume





Jenio gaiztoa

Pello Añorga
Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA
Aizkorri, Bilbo, 2007

Galduak eta itoak

Bitxia da: Behinola honetan berean Daniel Nesquensen *Marrazkitan blai* ipuin laburra edo albuma ekarri dugu orriotara, eta bertan esaten dugu lotura handia duela urte batzuk lehenago egileak berak argitaratutako *Euria* liburuarekin, biak ere Elena Odriozolak ilustratuak, biak ere Aizkorri argitaletxeak plazaratuak. Eta bitxia da oraingoan Pello Añorgaren *Jenio gaiztoa* ekarri dugulako, eta honek ere lotura handia duelako egile beraren *Bide magikoa* liburuarekin, biak ere Jokin Mitxelenak ilustratuak, biak ere Aizkorri argitaletxeak plazaratuak. Bai, bitxia da: obsesioak balira bezala, euria eta marrazkiak nagusi dira Daniel Nesquensen bi liburuetan, eta hondartza eta bertan galtzea nabarmentzen dira Pello Añorgaren hauetan. Baina, beren txikian, poetago ageri zaigu Nesquens eta narratzaileago Añorga. Baina goazen atalka.

Diotenez, Oteiza eskultoreak, haurra zela, hondartzan zulo bat egin eta bertan itsaso osoa sartzeari ekin zion, kubokadaka; baina laster ohartu zen bere ekintzaren ezintasunaz eta alferrikotasunaz. Esperientzia ia mistikoa, epifania moduko bat izan hura, artista betiko markatuko zuena. Eta hondartzaren espazioa dakarkigu Añorgak, eta

6+


Oteiza aipatu dugu Añorgaren liburuetan ere badagoelako halako filosofia bat, irakurketa anitza eta zabala eskaintzen diguna, oinarri-oinarrizko esperientzetatik abiatuta betiere.

Gogoan izango duzue, noski, Xabiartxo euskarazko lehen eskola liburuetakoren azala, eta Txiki Zabaloren portadako marrazkian ageri den mutikoak nola daukan liburu bat zabalik, eta horren azalean berriro ere mutikoa liburu bat zabalik duela, eta horrela ad infinitum. Bada *Bide magikoa* albumean ere halako zerbait gertatzen da: bide magikoa da aitak hondartzan —alaba toaila batean arrastaka— egiten duena, eta *Bide magikoa* da aita hondartzan irakurtzen ari den liburuaren izenburua. Nietzschek betiereko itzulera dela, errealitatea eta fikzioa bereizi ezina dela, Añorgaren liburuek badute —eta kasu honetan baita Mitxelenaren ilustrazioek ere— halako ukitu filosofiko bat eta, bide batez, irakurketa aukera anitza: nork bere bidea egitea, bide magikoa bilatzeko besteren beharra izatea...

Hondartza eta bertan galtzea ageri zen *Bide magiko* hartan, baina dramatismoan urrats bat aurrera egin du egileak, eta oraingoan itsasoak haurra irentsiko du (bi liburuetakoa aita-ama-neskatila triangulua ageri dira). Eta arriskua eta beldurrarekin batera, beste gai bat oraingoan: izaera, jenioa, haserre... Itsasoak ote du jenio gaiztoa, ala gurasoek...? Zezenaren irudia darabil Añorgak hori azaltzeko, paralelismoak eta errepikapenak, edota letra larriak dramatismoa indartzeko (JO ETA IRENTSI!). Prosa oso zaindua da, oso musikala eta, na-rratibotasuna aipatu badugu ere, Nesquensenean bezala, ia poesia da berea, poesia minimala.

Mitxelenaren lana ere ederra da eta zirrara berezia sortzen du neska itoaren ilustrazioak, edota olatuek airean dakarten kapeluarenak (zenbat kapelu Mitxelenaren ilustrazioetan, eta arrainak, noski; eta oraingoan aterkiaren antza duten eguzkitakoak...). Eta irakurketa aukera anitza liburu bietan ere.

Laura Sagastume



Tapaniren istorioa

Lembcke, Marjaleena
Anaya/Haritz. Bilbo, 2007

Gorria eta zuri/beltza

Anaya/Haritz argitaletxeak liburu gogoangarriak ditu Liburu zopa sailean. Edizio zaindua aurkezten digu beti, ilustratzaileei arreta berezia eskainiz, aldika itzulpenak, aldika jatorrizko idazlanak. Etxekoan artean hor ditugu, adibidez, Mariasun Landaren *Elefante txori-bihotza* edo *Magalik badaki* Patxi Zubizarretarena; kanpokoen artean, esate baterako, italiar ezagunen lan batzuk: Bruno Munari edo Gianni Rodari, idazle abangoardista eta, aldi berean, klasikoak.

Iaz, bi liburu argitaratu zituen. *Tapaniren istorioa* dugu esku artean.

Ilustrazioek pisu handia dute kontakizun honetan. Beraz, has gaitetzen ilustratzailearen lana goraiatuz. Izan ere, haur literaturako liburuen iruzkinetan, ia beti, irudien komentarioa amaiera aldera egiten da. Oraingoan, aldiz, irudiok aipamen berezia merezi dutelakoan nago.

Susan Opel-Götz ilustratzaile alemanarek dira, apartekoak.

Argumentua horrela labur daiteke: ahatxeko gorri bat agertu da Finlandiako itsasoan. Hasierako marrazkiak zuri-beltzean

daude eta ahatearen kolore gorria soilik ikusten dugu bizi-bizi. Trazu fin eta garbiko marrazkiak dira. Irakurketak aurrera egin ahala, irudiak «bizia» hartzen doaz, elementu ezberdinak kolorez jantzen: aterkia, oheko edredoa, gutun-azala eta, jakina!, ahatetxoa. Eta, beti, gorria agertzen da zuri-beltzezko orrietan.

Amets egiten duten pertsonak dira protagonistak, Tapani haurra eta Frich jauna, kamioilaria, alegia.


Bakoitzak amets bat betetzeko desioa du: batak futbolaria izan nahiko luke, besteak seme bat izatea. «Egunen batean», pentsatzen du gizon helduak, «umeen logela izarrez beteta margotuko dut».

Tapanik futbolearen aritu nahi lukeela esaten dio eskolako taldeko kapitainari, baina ezezko erantzuna jasotzen du beti. Ahatetxoa aurkitzeak ameslari bihurtzen du, nondik eta zergatik iritsi den galdetzen dio bere buruari.

Amaileran, bi pertsonaiek elkarri gutun batzuk idatzi ostean, bizitzari ekiteko adorea hartuko dute, norberaren desioetan konfiantza jarritz, aurrera egingo dute. Hasieran, tristura usaina dario kontakizunari, amets egin ostean geratzen den tristura, hain zuzen; baina, azkenean, goxotasunaren sententzioarekin bukatzen da irakurketa.

Apala da istorioa, xumea; marrazkiek, baina, indarra eta emozioa sortzen dute. Hunkigarria eta oso gomendagarria.

Asun Agiriano



Marrazkitan blai

Daniel Nesquens
Ilustratzailea: ELENA ODRIOZOLA
Aizkorri, Bilbo, 2007

Ari du

Banengoen ba ni... Daniel Nesquens idazle ezagunaren *Marrazkitan blai* liburu berria esku artean hartzean, zerbait ekarri zidan gogora. Liburuetan bila eta bila ibili, eta horratx: Daniel Nesquens-en *Euria* liburua, biak ere Elena Odriozolak ilustratuak gainera, biak ere Aizkorri-k argitaratuak. Eta bietan ere leitmotiv bera: euria, euria eta marrazkiak, euria eta ostadarra.

Bi liburuak berriaraberririk, iruditu zait *Euria* hura deskriptiboagoa dela, pausatuagoa alegia. Haur bat da narratzailea, baina bere inguruko azaltzen digu, bere sentimenduak kontatu. *Marrazkitan blai* hau, ostera, narratiboagoa da, aurrekoaren tempus bera du («Poliki zihoan denbora»), aurrekoaren ildo beretik dator, baina uholdea dakarren euria da oraingoan, bortitza, haurrak eskolan harrapatzen dituen, nahiz eta, harrigarria bada ere, dramatismo edo larritasunik batere agertu ez.

Egia esan, Pello Añorga eta Jokin Mitxelena Gerlari Handia liburuan, ekintzak ezustea ekarri zigun, istorioak berak garrantzi handiagoa zuen, eta Nesquensen hau generoaren barnean badago ere, argi dago egileak deskripzioaren aldeko hautua egin duela, narratibotasunaren kaltetan.

Uholdeak, ekaitzak, ekintza gehiago eragin zezakeen, haurren beldurrak piztitzakeen, baina hemen dena da sotil eta xume, lasai eta pausatu. Esan bezala, gustu kontuak.

Hala ere, aldaketa edo bilakaera handiagoa Elena Odriozolaren ilustrazioetan antzeman dugu. Aldatu da Odriozolaren trazoa, akaso koloretsuagoa da gainera oraingoan, eta urtsuagoa ere bai, lausoagoa; zuriguneak nagusiago dira eta testua interpretatzeko orduan libreago ikusi dugu: adibidez, idazleak dioenean «Txolarre bat kantuan hasi zen zuhaitz baten adarretik. Zerbait zerman mokoan. Bere habiarako adar zatitxo bat agian», orduan ilustratzaileak txolarre bat marratu du parkean, baina lehen eskolako patioa zena eta orain putzu dena, komuneko konketa bilakatu izan balitz bezala ageri da, eta txoria tapoia kentzen dabil.

Baina Odriozolaren ilustrazioa ez da bakarra. *Euria* hartan, idazleak zioen: «Euria marratea oso erraza da; arkatza hartu eta marra motzak marratea baino ez da. Marra aldenduak. Pixka bat okertuak. Baina euria marratzen baduzu, hodei bat marratu behar duzu, marratxoak darizkiola». *Marrazkitan blai* honetan, ostera, eskolako neska-mutikoak dira denbora pasarako marrazkilari bilakatzen direnak, eta bi albumetan soluziobide den ostadarra erakutsiko digu mutiko batek oraingoan, nahiz eta kanpoan oraindik ere euria bota ahalean izan.

Amaitzeko, esan beharra dago itzulpena, bere laburrean, oso zaindua iruditu zaigula, gozo sartzen dela alegia. Jon Suarez idazlea izan zen *Euria* hura itzuli zuena; oraingoan, baina, haren izenik ez dator eta zalantza horrekin geratu gara. Edozein modutan, atsegin hutsa, kanpoan giro ez den bitartean...

Laura Sagastume

Oinutsik jauregian

Yolanda Arrieta

Ilustratzailea: AITZIBER ALONSO

Ibaizabal, Bilbo, 2007

Printzesa errebeldea

Yolanda Arrietaren ipuin honek antzinako istorioen usaina du. Errege eta erregina, printzesa, gortea musikari, mediku eta abar ageri dira kontakizun honetan. «Herrialde hartako printzesari zapata gorri-gorriak oparitu zizkieten» esaldiak ematen dio hasiera ipuin honi; eta hain zuzen ohituren eta tradizioen inguruan eraikitako istorioa dugu hau. Printzesak zapata gorriak izan behar ditu, erregeak galtzontzilo horiak eta erreginak titi-zorro berdeak dauzkaten bezala. Baina ipuin honetako protagonistak arazoak ditu zapata gorriekin, bere aurkezpenerako oparitu dizkieten oinetakoekin. Zapataria, medikuak bai eta aztiak ere aztertu egingo dute arazoa, eta azken horrek zapatek ez dutela ezer, problema beste bat dela adieraziko die errege eta erregina ikaratuei. «Halako joerak aldaketa baten iragarle izan ohi dira» (10. or.) dio aztiak. Eta aldaketa horren ondorioa dugu *Oinutsik jauregian* hau.

Istori, kontakizuna eta irudiak, biek, Arrietak eta Alonsok, lan handia egin baitute, entretenigarria da, atsegina, gustura irakurtzen edo kontatzen dena. Baina hori baino berritzaileagoa dugu liburu honek hasiera ematen dion «Oker» bildumaren apustu estetikoak. Albuma es-tiloko liburuak dira (nahiz eta azala biguna izan eta formatua ere txikia), irudiak –gehienetan orri biak betetzen dituzten irudi iradokitzaileak– testua baino haratago doaz, informazio berria eta ugari ematen digute. Horrez gain testuarekin ere jolastu egin dute forma ezberdinak emanez, letra estilo eta neurriekin jolastuz eta, zenbaitetan, baita koloreekin ere. Testua, irudia eta maketazioa, hiru elementuen arteko konbinaketaren emaitza dira liburuak.

Oinutsik jauregian honek badu ipuin klasikoetatik, tradizioaletatik, baina baita



literatura berriaren ekarpenetatik. Alaba errebeldea dugu, tradizioa onartu ez eta jokabide berria hartzen duena. Izan ere, tradizioa gorde daitekeen bezala tradizioarekin hautsi daiteke, eta hori da printzesak aukeratu duena erregearen, aitaren, nahiaren kontra. Honek argi eta garbi adierazia baitzuen zein zen beren betebeharra: «—Ze aldaketa eta ze aldaketa ondo! —bota zuen—. Gurean dagokiona jantzen du bakoitzak». (12. or.), eta ondoren, hitz egin ez arren, musikariaren bitartez jakingo dugu nolakoa den maiestateen haserrea: «Musikariak fi-fi, fa-fa hasi ziren maiestateen trumoi-aurpegiak leundu guran». (20. or.)

Sarritan transtestualitateaz eta hitz egin dugunean, testu berriek lehengo beste batzuen oihartzuna dutela-eta ideia berriak azaltzeko, umorearekin jolasteko, irakurleagoaren interesa erakartzeko eta beste hamaika kontuetarako aproposa dela aipatu izan dugu. Kasu honetan ez dugu hipotestu ezagunik, nahiz eta batzuetan *Errauskine* burura etorri, baina kontestua bera tradizionala dugu, eta hor haustura bat aurki dezakegu, errebeldia puntu bat, jokabide berritzailea.

Arestian, istorio honek antzinako ipuinen usaina zuela esan dugu, eta hain zuzen antzinako itxura horrek laguntzen du mezua biguntzen, irakurlearengana

era literarioagoan iristen. Izan ere giroak, errege-erreginak, musikariak, gozogileak, jauregiak —baita hau argitzeko kandelak—, urrutiko mundu batera, gezurretakoa, fikziozko mundu batera garamatzate.

Dena dela, Arrietak idatzi eta Aitziber Alonsok ilustratu duten ipuin honekin ederki goza ahal izango dugu argumentuagatik, irudiengatik, liburuaren estetikagatik, eta guk ere, printzesak bezala, jira eta bira dantza egingo dugu ipuinaren amaierarekin bat eginez «eta musikariak fi-fi, fa-fa hasi ziren berrito. Badaezpada».

Xabier Etxaniz Erle

Olentzeroren malutak

Juan Kruz Igerabide
Ilustratzailea: EIDER EIBAR
Elkar, Donostia, 2007

Olentzero gaixotu zenekoa

Duela hamar bat urte hurrekin ari diren irakasleek Olentzeroren inguruko istorioak eskatzen zituzten. Ez zegoen euskal pertsonaia magiko horren inguruan egindako ipuin, kontakizun edo istoriorik. Urte batzuk pasa dira eta zorionez hutsune hori betetzeko hainbat liburu aurki daitezke gure denda edo liburutegietako apaletan; azkena esku artean dugun hau.

Juan Kruz Igerabidek ez du pertsonaia mitologiko honen historia kontatzen, pertsonaia honi gertatutakoak baizik. Are zehatzago esateko Olentzero gabon egunean gaixotu zen batean jazotakoak.

«Badator Olentzero mendian behera gau ilunean, inork ez ikusteko moduan. Hotz egiten du, zero azpitik bi.» esaldiarekin hasten da istorioa. Olentzero, etxera bidetan, iturri batean garbituko da («Hau kuxidada! Honela ezin naiz agertu kalean. Bazter guztiak zikinduko ditut», 6. or.) eta ondoren, gaixotu. Idazleak, pistak apur-apurka emanez, gertatuko denaren berri jakinarazten digu. Dardarka jartzen da Olentzero, eztarrian zerbait nabaritu, ziztada bat sentitzen du geroago... eta azkenik, berebiziko sastada.

Olentzerok ezin du hitz egin, ezin du hotsik egin... are gutxiago sendagilearen laguntza eskatu. Ipuineko une gorena, tentsio handiena, orduan nabari da, Olentzero bakar-bakarrik eta gaixorik aurkezten zaigunean, Euskal Herriko haur guztiek beren opariak espero dituzten egunean ohean geratuko behar denean: «Zer egin? Gauerako sendatzen ez bada, milaka ume oparirik gabe geratuko dira. Jaikitzen hasi da. Gorputzak tona bat pisatzen dio. Hanka bat atera du, gero bestea, gero ukondoarekin bultzatuz jaso du gorputza, ohe ertzean eseri, txapinak jantzi, eskuak belaunetan ipuin eta behera bultzatuz zutik jarri da.

6+



Berrito eseri behar izan du, zorabioak jota». (20-22. or.)

Orain arte Olentzeroren istorio ia guztiak pertsonaia horren lana eta izaera kontatzeko idatzi dira; orain, aldiz, Igerabidek urrats bat aurrerago egin eta Olentzerori jazotakoak kontatzeari heldu dio. Narrazioa eta ilustrazioaren arteko kontakizuna dugu liburu hau, Eider Eibarren irudiek —orri bikoak eta koloretan— album itxura ematen baitiote liburu honi. Testua deskriptiboa da, amaiera aldea kenduta ia-ia elkarrizketarik gabekoa, eta hirugarren pertsonaia kontatua. Narratzaile orojakile horrek irakurlea prestatzen du apurka, Olentzero gaixotu eta, antza denez, ezingo du bere lana egin. Irudiek ere ederki osatzen dute testuaren informazioa, horretarako Eibarrek, batik bat, bi elementurekin jotzen du: Olentzeroren irudiarekin (indartsu, makal, triste...) eta animaliekin, narrazioan ageri ez baina irudietan pisu handia hartzen duten animaliekin. Alde horretatik irudiak testua ulertzen laguntzeaz gain, osatu eta aberastu egiten du narrazioa. Hots, testuaren eta irudiaren harremana zuzena —eta aberasgarria— dugu liburu honetan.

Egileek liburuari eman dioten amaiera irudimentsua da, magikoa —pertsonaia bezala— eta zorionsua. Haur batzuen hase-rrealdia ikusiko dugu irudietan, jostailuak falta direla ikusten sentitzen duten amorruek... baina azken irudiak, azken esaldiak,

«Telebistari begira, irribarre egin du Olentzerok», argi eta garbi azpimarratzen dute ipuinaren amaiera lortua eta zorionsua.

José Lambertek dioenez gizartearen, hizkuntzen eta literaturen arteko harremanak izaera dinamikoak ohi dira. Lan hau horren adibidea dugu, are gehiago, Olentzeroren inguruko istorio hau kultur nortasun sortzailatzat hartu behar dugu. Idazlan batzuek entretenitzeko eta une atsegina igarotzeko balio dute, beste batzuek horretaz gain zerbait ikasteko, eta badira balio horiek izateaz gain herri baten nortasuna indartzeko ere aproposak direnak; *Olentzeroren malutak* ipuin eder hau, horren adibide argia dugu.

Xabier Etxaniz Erle

Sekretuak belarrira

Ruben Ruiz

Ilustratzailea: ELENA ODRIUZOLA

Aizkorri, Bilbo, 2007


Jolasa omen da haur poesiaren ezaugarri behinena. Eta, horretarako, ezinbestekoak omen dira haur poesian errima eta erritmoa. Ikuspegi hori nagusi da gaur egun haurren poesia aztertzen dutenengan. Eta bat nentorke, baldin eta «behinena» eta «ezinbestekoa» hitzak kenduko bagenitu esaldi horretatik. Poesian, oro har, eta haur-poesian ere berdin, ez dago ezinbestekorik. Gaur egun oso modan dago, batez ere gaztelaniaz, bertsolarien moduko ahapaldi erritmiko errazak erabiltzea (oktosilabikoak batik bat); eta molde horiek puskatzen dituzten testuek ez omen dute «erritmorik»; horrelakoak behin eta berriz entzuten eta irakurtzen ditut.

Honezkeronabaria da zer esan nahi dudana: bideak estutzearen kontra nagoela. Poesiaren ezaugarri ezinbestekoa poesia bera da, eta oso ondo zehaztu ezin den kontua da poesia zer den definitzea. Ibiliaren ibiliz dastatzen den zerbait dela esango nuke.

Ibiliaren ibiliz eta *Sekretuak belarrira* esanez bezala dastatzen da Ruben Ruizen poesia ere. Lilura batetik jaiotzen da, hitzaren eta munduaren arteko lotura aske eta xumetik.

Eta txorimaloa mintzatu zen obraren bidez narrazio poetikoaren eremua landu ostean, *Sekretuak belarrira* hauxe da haren lehen poema-liburua, haur txikiei zuzendua. Liburuaren egitura urteko hilabeteen ingurukoa da, urtariletik abendura, haietako bakoitzerako hiru poema labur eskaintzen dituela. Alde horretatik, aurreko hamarkadan Yolanda Arrietak eta Joxantonio Ormazabalak hurrenez hurren argitaraturiko *Denboraren kanta-kontuak* eta *Hitzak jostailu* poema-liburuetak denboraren gurpilaren tradizioan kokatzen du bere burua Ruizek.

Formari dagokionez, poema laburrak dira, hiruzpalau lerrokoak. Pieza labur horietan, errima eta erritmoa barrutik sortzen dira, berez bezala. Aurrena ura bilatzen da, eta



gero esku ahurretan biltzen, edateko. Eta ez alderantziz; aurrena ontzi bat hartu (forma) eta gero hasi ur bila. Liburuaren hasierako «Ardia» poema oso indartsua da:

«Mendi magalean
elur maluta:
bertan ardia galduta.» (5. or.)

Izadiko zertzeladak sentipenetik igarozten dira liburuan:

«Basoan kukua kukuka;
errekak darama
mezua txistuka.»

Haikuaren eta koplazaharraren uztarketa etengabea eta fina ikusten da liburuan zehar, beti ere modu librean eta jostarian, doinu *minor* batean, belarrira hitz eginez bezala.

Eta elkarrizketa horri eusten diote Elenaren marrazkiek, elkarrizketa hori areagotzen dute, poesiari poesia emanaz. Adibide zoragarri bat «Haize jostuna» poeman dugu; irudiak poema areagotu egiten du, sentazioa areagotu, halako ikus-mugimenduzko sinestesia bat eraginez:

«Ama josten leihoan,
gortina gona bihurtu
haizea bada ondoan.»

Era askotako gaiak darabiltza Ruben

Ruizek liburuan barrena, baina naturaren hondamendiarekiko kezka berezi bat sumatu uste izan dut, hondamendi naturala zein gizakiaren eskutik etorria: sutea, erreka lehortua, tximista, lurrikara, baleen hilketak, deforestazioa...

Beste batzuetan, zorionez, artifiziozko naturak sortzen ditu gizakiaren esku bestetan suntsigarriak, palmondoak adibidez:

«Uda-gauean su-festa;
gurasoen babesean, ze ondo!!
Pumm!! Pumm!!
Zeru ilunean bi palmondo.» (24. or.)

Irudiak, esan bezala, Elena Odriozolarenak dira, eta poemei interpretazio pertsonala eman ez ezik, ikusizko esanahi orobat poetikoa ere gaineratzen diete, noiz kolorearen bidez, noiz aukeratutako motiboaren bitartez.

Manu Lopez Gaseni
Juan Kruz Igerabide

Otto, ilauneko hartz baten autobiografia

Tomi Ungerer
Ikas Pedagogia Zerbitzua, Ustaritze, 2006

Beti da pozgarria, abenduko azokaren zu rrunbilan, ezezaguna zitzagun argialetxe batekin topo egitea. Horixe gertatu zaigu Iparraldeko Ikas Pedagogia Zerbitzuak argialetxearekin.

Aspaldi hasi zen idazle ezagunen obrak euskaratzen; baina badituzte beste lan interesgarri batzuk ere euren liburu-katalogoan, adibidez, lehendik zuten argitaratuta poltsikoko edizioan Kalandrakak berriki euskaratu duen Eric Carleren liburua, «Beldar gosetia», alegia.

Edo, aurten kaleratu duten «Lodikroko» olerki liburuxka, musika batek lagundurik.

Esku artean dugu Ungerer idazle frantziarraren liburua, 1931. urtean jaioa eta aski ezaguna «Hiru bidelapurrak» ipuinagatik (bide batez aipatu, euskarara itzulita izenburu horixe dugula bakarrik).

Oraingo hau ez da oso ezaguna, baina egun pil-pilean dagoen gaia ukitzen du, hain zuzen ere, munduko bigarren gerran gertatutako holokaustoa. Gertakizun hark idazlearen haurtzaroa biziki markatu zuen, eta ilustratzaile gisa egingo zuen lanean eragin nabarmena utzi zuen, marrazki ugari baititu alemanen gerrarietz baterik.

29 ipuin zoro

Ursula Wölfel
Ilustratzailea: BETTINA WÖLFEL
Alberdania, Irun, 2006

Irribarre egiteko ipuinak

Aurreko urteetan Ursula Wölfel-en 27 ipuin zopa hartzeko eta 28 ipuin barre egiteko plazaratu ostean, Alberdania argialetxeak egile beraren 29 ipuin zoro argitaratu du joan den urtean.

Ursula Wölfel egile alemaniarra (Ruhrgebiet, 1922) oso ezaguna da haur eta gazte literaturaren arloan «Errealismo kritikoa» izeneko korrontearen ordezkarietako bat



Ipuin honetan protagonista nagusia hartz bat da, hartz-panpina, Otto izenekoa, haur baten urtebetetzeko oparian munduratu. Eskuz esku dabil, hainbat lurraldeetan, eta egokitzen zaio pasadizo krudelak eta oinaze franko bizitzea.

Kontakizunaren lehenengo esaldia bera gogor samarra da: «Otto, zaharra haiz –pentsatu dut antikuario baten bitrinaran aurkitu naizen egunean».

Hartzak berak idazten du istorioa, bere ahotik dakigu bizitakoa, oroitzapen minduak. Beraz, aukera ematen digu le-

henengo irakurleek autobiografia generoa ezagutzeko, berritasun nabarmena haur literaturan, autobiografiaren generoa urria baita umeentzako lanetan.

Ottok, bizitzako ibilbidea kontatzen digu: Daviden urtebetetze opari bihurtu eta mutiko honen lagunarekin nola jolasten zuen; tartean, judutasuna eta erlijio kontuak zer ziren ere antzeman gabe.

Zauriz eta urraduraz beteta, bonbardaketa eta tiro hotsez ingurutarik, heriotzatik bizitzara egingo du jauzi hartz gizajoak; eta etxe batzuetako epeltasunetik bakardadera eta isolamendura igaroz, aurrera egiten du kontakizunak

Hartz-panpina Alemaniatik Estatu Batu-etara ailegatuko da (idazleak egin zuen bidaia bera, 1956. urtean New York-era iritsi eta liluratuta geratu zen hiriak zuen mugimendu kulturalaz); eta han, abentura izugarriak biziko ditu eta ezagutuko ditu, gizakien maitasuna eta gorrotoa, aldi berean.

Marrazkiek izugarritzko garrantzia dute, bikainak dira, karikaturaren antza dutela esango nuke. Itxaro Bordaren itzulpena ere zaindua da, zuberera erabiliz.

Istorio hunkigarria eta tristea; baina, aldi berean, sakona eta ederra.

Asun Agiriano

izateagatik. Beste inoiz adierazi dugun bezala, II. Mundu Gerraren ondoren Alemania inguruan sortutako literatur bide horren helburua gizarteko gaitzak umei ere erakustea da, batzuetan guztiz gordin, beste batzuetan itxaropen apur bat eskainiz. Alde horretatik, Wölfel mundu osoan ezaguna egin zuen liburua *Soro berdeak, soro grisak* (Elkar, 1985) ipuin-bilduma izan zen. Bertan, esan bezala, era guztietako gizarte-salaketak agertzen dira, horietako batzuk hirugarren munduan kokatuak: saldukeria, askatasun falta, pobrezia, beste arraza eta

kulturatako umeen bazterkeria, zaharren bakardadea, dibortzioa, alkoholismoa edo gerretako bidegabekeriak. Liburu horretaz gain, *Suzko zapatak eta haizezko sandaliak* (Elkar, 1986) izenekoa ere argitaratu du euskaraz.

Wölfel-en ibilbide literarioaren bigarren aldi batean, berriz, hasieran aipatutako istorio laburrak plazaratu ziren. Egunerokotasunari begirada zorrotzaz erreparatuta, umorea eta ironia izan ziren ipuin haietan nagusi, eta zenbaitetan Rodarik bere *Fantasiaren gramatika*n proposatutako teknika batzuk erabiltzen dira, argitarapenaren aldetik liburu biak nahiko hurbilak badira ere.

8+

Gurpil gainean nabil

Xabier Mendiguren Elizegi
 Ilustratzailea: PATXI GALLEGO
 Giltza, Bilbo, 2007

Irakurleak egiten dituen istorioa

«Ferraria» du izenburu Mendiguren Elizegiren liburu honen lehen kapituluak. Ferrari baten irudia du azalean liburuak; eta zitzu bizian bere Ferrarian ari den mutikoa istorioaren abiapuntua.

Testuak ezer ez badio ere, irudiak, 9. orrian dagoen liburuko lehen irudiak, berehala adierazten digu Ferrari hori nolakoa den; edo, hobe esanda, zer den. Izan ere liburuiko protagonista aulki gurpildun batean dabilen mutikoa da, bere bolidoan zitzu bizian ibiltzen dena eskolako korridoreetan, ikaskideekin batera lasterketak egin nahi baino uzten ez dioten Fitipaldi (beno, Schumacher esan beharko genuke istorioari eta historiari lotuago izanik).

Mikel gazte eta elbarrituaren abentura dugu *Gurpil gainean nabil* hau. Jon Kortazarrek, euskal literaturaren postmodernitateaz aritu zaigun azken saio baten (*Utrisque Vaconiae*, 2007), irakurle ezaren kontua aipatu du; zaletasuna bultzatzeko, alde horretatik, nahitaezkoak dira kalitateko obrak, irakurlea harrapatzen dutenak. Horietakoa dugu Xabier Mendiguren liburu hau.

Zazpi kapitulu laburretan banaturiko ipuinak Mikel eta Arrate eskola kideei jazotakoa biltzen du. Bizi-bizi, eta formula bateko kotxe baten abiaduran hasten da narrazioa. Mikelen ikuspuntutik, mundua berak ikusten duen moduan eta tokitik narrratua. Horrela azaltzen zaizkigu eskola giroa, Mikelek dituen abantailak eta jasan beharreko txantxak:

- «—Ezetz igo arbola horretara, Mikel!
- Ezetz jaitsi txirristatik buruz behera, Mikel.
- Ezetz sartu gola baloia ostikoz jota, Mikel!». (13. or.)

Neska-mutilen arteko komentario min-




Hor kokatzen dira, hain zuzen ere, gaurkoan hizpide dugun liburuko ipuinak.

29 ipuin zoro orrialde betetik pasatzen ez diren mikroistorioak dira, askotan surrealismotik edo «nonsense» delakotik hurbil mugitzen direnak, dela esapideren bat zentzu zuzenean hartzearen ondoriozko ipuina delako («Haur batek begi zorrotz-zorrotzak zituen. Hain zituen zorrotzak begi-kolpe batez ebaki zezakeen ogi xerra bat. Atzazalak mozteko ere ez zuen batere arazorik...»), edo «Horman gora igotzen zen gurasoaren ipuina»), dela egoera hiperbolikoaren ondorioz («Oporretara joan zen pisu-jasotzailearen ipuina»), dela eguneroko arazo eta eztabaiden ondoriozko barregarriak («Sekula ados jartzen ez zen familiaren ipuina»), «Andre txiki eta gizon handiaren ipuina»). Idazketaren aldetik esaldi soilez osatutako ipuinak dira, arinak eta irakurterrazak, ume txikiei kontatuak izateko ere egokiak.

Joera espresionistako irudiak Bettina Wölfel-enak dira, ipuin bakoitzaren muina jaso eta ederki ilustratzen dutenak. Itzulpena, Lola Erkiziak eta Inazio Mujika Iraolak sinatua, ondo funtzionatzen du, eta ez du irakurketa-arazorik eskaintzen.

M.L.G.



garri eta zitzagarri horien ondoan umorezko ateraldiak (Aio, Pelaio; bainak ortuan...) eta elkarrizketa biziak ageri dira narrazioari arintasun eta freskotasuna emanez.

Di-da batean irakurtzen den istorio honen korapiloa Mikel eta Arrate zigorturik aldageletan entzerraturik geratzen direnean jazotakoa dugu. Mikelek, amorruez, sua ematen dio irakaslearen arropari, eta ia-ia itotzen dira biak. Elkarren etsai ziren neska-mutilak elkarri lagundu behar diote aldageletatik irten ahal izateko. Ospitalean egon ondoren eskolara itzultzean biek aurre egin beharko diote zuzendariaren galdeketari, eta gertakari horiek guztiek lortuko dute bien adiskidetasuna sendotzea.


Mendigurenek estilo zuzena darabil, Mikel gaztetxo jarri du narraztaile eta ederki lortzen du mutikoaren ikuspegia; eta irakurle inplizitoari zuzentzen zaio sarritan Mikel gaztea: «Zein da kirolari gazte batentzat ikasgai gustukoena eta garrantzitsuen? Dudarik gabe, eta beste guztien gainetik, soinketa. Baina nire kasuan ez da horrela. Gustatzen ez zaidalako? Ez, ez da hori. Baztertuta eta aparte uzten nautelako baizik» (19. or.). Horrekin batera deskribapen zehatzak, laburrak, hitz gutxitan egoera islatzeko modukoak: «Metro bateko tartean geratu

gara, ontzia galdu duten naufragoak baino errukarriago: bateko ni, kristalean gainean arrastaka, Rambo Vietnamgo oihanean bezala; besteko bera, Arrate, egitandia egin eta gero konortea galdu duen heroia, betaurrekoak apurtuta; eta gure ondoan Ferraria, larriki zaurituta, hilzorian». (42. or.)

Patxi Gallegoren irudiek komikien eragina dute eta argumentua hobeto ulertzen laguntzeaz gain gertakariak irudikatzekeo lagungarriak dira. Irudiek, elkarriketa biziek, estilo arinak... guztiek lortzen dute irakurketa arina eta atsegina, bai eta argumentuak berak ere.

Xabier Mendigurenek ihes egin dio errazkeriari, protagonista elbarrituak ez du penarik ematen bere mugak dituen pertsona arrunta da, heroia ere elkarlanaren ondorioa da, eta, azken finean, istorioa sinesgarria da. Fantasia edo irudimen handia duen mutikoaren kontakizuna. Irakurleak harrrapatzen dituen ipuina; irakurleak egiten dituen istorioa.

Xabier Etxaniz Erle



Itsasargia

Koos Meinderts

Ilustratzailea: ANNETTE FIENIEG

Itzultzailea: UXUE ALBERDI

Tarttalo, Donostia, 2007

Bizitzak aurrera jarraitzen du

Alberto Manguelek *Una historia de la lectura* liburuan bigarren gerra handiko argazki bat komentatzen du. Londoneko liburutegi bat ageri da bonba batek hautsita, sabairik gabe eta hondakinen artean apalak liburutegi bat ageri dira. Liburutegian hiru gizon daude liburuak ikusten, irakurtzen eta aztertzen erosteko asmoz. Manguelek dio gizon horiek ez diotela bizkarra ematen gerrari, ez bizitzari; gizon horiek liburu artean daudela bizitza ulertzen jarraitu ahal izateko.

Horixe dugu liburuen bertute bat, entretenu, irakatsi, jolastu... eta baita bizitza ulertzen lagundu; haurrentzako liburuetan, gainera, are handiagoa omen da bizitza ulertzen laguntzeko joera hori. Koos Meindertsek idatzitako *Itsasargia* hau horren adibide argia da.

Emakume baten istorioa da ipuin hau, neska gazte hori ama eta amona bilakatuko da eta bere bizitza bi elementuren artean gertatzen da: Jonas izeneko senarra, semea eta iloba; eta itsasargia, bere txikitako ametsa eta bizitokia ondoren.

«Xaharra da amona, baina zaharragoa itsasargia. Askoz zaharragoa.

Pentsa, amona neskaitila musugorria zenean itsasargia zaharra zen jada. Dunen atzeko herrixka txikian bizi zen garai hartan amona, eta amets bat gordetzen zuen duna haien atzean.» (6. or.)

Neskaitila musugorriaren ametsetan farozaina ageri da, eta itsasargiko goiko gela borobila.

Meindertsen eta Fieniegen artean eginiko liburua sinbolikoa dugu, senarra, semea eta iloben izenak berdinak izateak nolabaiteko batasuna eta uniformetasuna ematen die hiru gizonetako horiei, hiru dira baina bat. Garrantzitsuena ez direlako beraiek, ez zer egiten duten, amona dugu protagonista istorio honetan, eta amonaren gainetik bizitza bera, itsasargian eguneroko bizitza, belaualdiak aldatuta, pertsonen joan-etorrien gainetik, eguneroko bizitza dugu liburuko istorioaren ardatz nagusia.

Egileek, baina, gai edo kontu serio eta sakon hori oso modu arinean, eta baita poetikoan kontatzea lortu dute (aipagarria da idazkiaren tonuaren eta errepikapen bidez lortzen den efektua). Ilustrazioak koloretsuak eta errealistak dira, bizitasun handikoak, eta zenbait kasutan pastel koloreen bidez atsegin eta lasaitasun giroa islatzen dutenak; beste zenbaitzuetan, aldiz, alaitasuna eta poza ikus daiteke, amonak Jonas farozainarekin dantza egiten duenean, esaterako.

Narrazioan, berriz, hiru belaunaldiren istorioa agertzen zaigu, aitona Jonasena oso gainetik, Jonas aitarena labur-labur (umea amonaren ardurapean utzi eta munduan bidaiatzera joaten baitira Jonas gaztearen gurasoak) eta Jonas txikiarena, amonaren ardurapean hasieran eta amaieran amonaz arduratuko den gaztetxoaren istorioa.

Liburu honek, beraz, kontu asko ezkutatzen ditu azaleko itxura horren pean. Haur txikiarentzako albuma dela ematen du, baina gaiak, kontatzeko modu poetikoak eta idazkiak duten pisua ikusita, heldu-agoentzako liburua dela esango nuke. Edo,

helduekin ikusteko eta irakurtzeko liburu bitxia, aparta.

Ez du ematen oso liburu erraza, ezta arina; baina istorio hunkigarria da, oso modu ederrean kontatzen dira eta iradokitzen kontuak. Gizakion bizitza eta heriotza, familia edo maitasuna bezalako gaiak agertzen zaizkigu

istorio txiki honetan; amonaren heriotzak ere, irekia izanik, ez gaitu tristatuko. Bizitzak aurrera jarraitzen baitu, liburu amai-eran ageri zaigun bezala; Jonas gaztea dantzaldira joango da eta: «badakit musu

ematen utziko didala, masailean, suzko adatsean, ile-xerloari eusten dion belarri txikian eta udazken zaporeko aho gorrian».

Mariasun Landak *Nabarra* aldizkarian zioen bezala «Kalitatetik jo behar dugu»; *Itsasargia* honek, Mariasunek aipatzen zuen bidetik jotzen laguntzen digu.

Xabier Etxaniz Erle

Korri, Sebastian, korri!


Juan Kruz Igerabide
Ilustratzailea: GEMMA SALES
Erein, Dostia, 2006

Azukrea bere neurrian

«Baliioen Txanda» izeneko bilduma argitaratu zuen iaz Erein etxeak Valentziako Bromerarekin batera, eta kaleratutako 11 liburuen artean badira bi euskal idazleek eginak: *Arroza eta tinta*, P. Zubizarretak idatzia, eta *Korri, Sebastian, korri!* hau.

G. Lluh irakasleak gazte literatura psiko-literatura dela dio; hau da, gazteei zuzendutako literaturak balio diela adin horretan daudenei beren garapenean. «Baliioen Txanda» bilduma hau ez da gazteei zuzendutakoa, baina badu laguntzeko, balioak islatzeko, haurra hezteko asmoa. Eta, hain zuzen, horrelako sailetan ikusten da idazlearen benetako balioa, literaturaren eta pedagogiaren arteko borroka horretan nola erabiltzen dituen bere errekursoak idazlan literarioa egiteko argialetxeak ezarritako parametroen barruan.

Juan Kruz Igerabide, Zubizarreta bezala, trebea da eta ederki asmatu du bilduma honetarako idazlan literarioa egiten. Maistra baten ahotsa jarri dio kontakizunari, eskolan gertatzen den istorio hau kontatzeko hirugarren pertsonaren aukera egokia baita, are gehiago protagonista mutiko ezberdina denean: «Sebastianek arazo bat dauka, eta ezin du besteen martxan ikasi. Hitz egiten, ondo samar moldatzen da, denek ulertzeko moduan. Margotu, bere erara egiten du, gustura. Jolastu, denekin jolasten du, eta



ederki pasatzen du.»(5. or.). Baina down sindromea duen Sebastian, eskolan ederki integratuta egonda ere, tristatu egin da gelakide guztiek irakurtzen ikasi dutelako eta berak ez. Egoera horretan gelara etorritako neska berri batek, arazo larria izanik aulki gurgildunean ibili behar duen Tatianak, Sebastianen beharra izango du... eta Sebastiani lagunduko dio.

Hitz gutxitan (minimalismotik hurbil dagoen testua dugu hau, *Nire terrazatik* liburu eder haren antzera) eta bi kapitulutan bakarrik, Igerabidek istorio hunkigarria eta bizia kontatzea lortu du. Sebastianen aitak negar egiten badu ere mutikoaren aurrerapena ikustean ez dut uste irakurlearengan horrelako sentimendurik sortaraziko denik Igerabidek idatzi eta Gemma Salesek irudi errealista eta kolore bizikoen bidez ilustraturiko istorioa irakurtzean. Are gehiago,

istorio hunkigarria dela esan dugu, baina irakurlearen irribarre konplizea bilatzen da narrazioan zehar; prozesu horretan idazlearen narratibak, estiloak, garrantzi handia duelarik: «Sebastiani aurpegia argitu zaio hori eskatu diodanean. Irribarreak belarriak jan behar dizkiola ematen du, begiak kopetan gora abiatu behar zaizkiola; eskuak, berriz, ezin ditu geldirik eduki. Ez dut inoiz ikusi hain urduri pozagatik» (19. or.). Gainera, narratzailearen distantziatik irakurleak Sebastianen bizitza jarraitzen du, eta narratzailea bezala bera ere mutikoaren alde jartzen da, Tatianaren inteligentzia eta Sebastianen indarra elkarturik sorturiko egoera animatzen «Korri, Sebastian, korri!» hori nork esaten dion, diogun, oso garbi ez jakin arte.

Izan ere, Manu Lopezek zioen bezala haurrentzat idaztea ideologia politikoki zuzena aldarrikatzea da, eta ipuin honetan –bildumako guztietan bezala– horixe bilatzen da, balioak bultzatzea, adiskidetasuna, laguntza, denok ezberdinak garela onartzea... eta mila kontu gehiago. Baina Manu Lopezek bere saiakera liburuan esan bezala «gauza jakina da gehiegizko azukrea txarra dela umeentzat»; eta ez Igerabideren istorioan, baina agian bai liburuan (ipuina amaitu ondoren badirelako beste bi orri «proposamen didaktikoa» betetzen dutenak) azukre gehiago botatzen zaio, ongi zegoen testua gozoezi bilakatuz.

Xabier Etxaniz Erle



Sagutxo Jakingose

Gerardo Markuleta
Ilustratzailea: JON ZABALETA
Erein, Donostia, 2006

Sagu kontuak

Gaur egun Gerardo Markuleta oñatiarra itzultzaile eta poetatzat badaukagu ere, beste zeregin literario batzuetan ere aritua da: hor dira, esaterako, duela urte batzuk Iban Zalduarekin batera argitaratutako *Ipuin eskaldunak*. Jende gutxiagok gogoratuko du, ordea, 1994an Lizardi saria eskuratu zuela *Asier eta egia gurutzatuen liburua* orain arte haren haurrentzako liburu bakarra izan denarekin. Hamabi urte geroago, beraz, haur literaturaren eremura itzuli da, zerekin eta haur txikiarentzako album klasikoaren usaina dakarren *Sagutxo Jakingose* izeneko ipuinarekin.

Ipuinak bi atal edo zati ditu, ondo bereiztuak: «Sagutxo ihesi» eta «Sagu-aita saguzarrenean». Lehenengoan sagu txikia aurkezten zaigu, sagu-zuloan, bere aitaren berri ez duela; amak hartu du sagutxoa hezteko ardura (sagu eskalduna ote den argitzen ez zaigun arren), bi zutoin nagusitan oinarrituta: jainkoaren errespetuan eta kanpokoaren beldurrean. Hala eta guztiz ere, ama kanpora atera zen gau batean, jakin-mina beldurrari nagusitu zitzaion, eta sagu txikia kanpora atera zen bere bizitzan lehenengo aldiz; transgresioaren ondorioa, umorez, ez zen kaltegarria izan, nolabait zorionezkoa baizik.

Lehen atal honetan tradizio oihartzunak jarri ditu jokoan Markuletak, umeak alde

8 +

aurretik ezagutzen dituen ipuin batzuetako osagaiak, espektatiba jakin batzuk eraginez. Eta itxaropen (gaizto) horiek betetzen ez diren neurrian, irakurle gazteak arindura halako bat jasotzen du, eta barre egin dezake lehen zatiaren amaierako txistearekin (helduari, mutil-lagun itsusi hegazkinlari-arena ezagutzen zuela, irribarrea baino ez zaio ezpaineratzen).


Bigarren atalean, aitzak ordua arte kanpoan izatearen arrazoiak azaltzen dizkio sagu-semeari: aurrekoa gose-urtea izan zen saguentzat, baita ehizatuak izateko inoiz baino arrisku gehiagokoa ere; hori izan zela eta, sagu-agureen kontseiluak, saguen elezaharretan oinarrituta, laguntza bila joateko ardura eman zion berari, sagutxoaren aitari. Agindua behar bezala beteta, bueltan zegoen, pozaren pozez.

Azken atal hori epikoagoa da, baina ipuin tradizioletako ezaugarriak ere biltzen ditu, hala nola, urruntzea, agindutako probak gainditzea, eta abar. Tartean, elezaharren gaia ekintzaren eragile gisa, gogoratu (nahi) ez dudana beste kontakizunen batean ere erabili izan dela esango nuke. Tradizioak ondo integratuta daude ipuinean, edonola ere. Formaren aldetik, bigarren (eta, tarteka, are hirugarren) mailako narrazioa izatea ume irakurlearen ulermena zertxobait zail dezakeelakoan nago. Narrazio zuzena emateko erabiltzen diren gidoi eta komatxo ugarien arteko nahasketak ere ez du horretan gehiegi laguntzen.

Saguen erabilera oso zabala izan da haurrentzako ipuinetan eta, beharbada, Arnold Lobel estatubatuarren «Sagu-kontuak» jada klasikoak da burura datorren lehenengoa. Gerardo Markuleta *Sagutxo Jakingose* hau kate luze horretan kokatzen da, eta orain arteko azken kate-maila oso duina dela esan daiteke, eta egileari aurrerantzean haur literaturara maizago hurbiltzea opa diogu.

Amaizeko, hau bezalako ume-album batean, ezin aipatu gabe utzi Jon Zabaletaren irudi beti bezain bikain eta iradokitzaileak.

Manu Lopez Gaseni



Maharajaren katua

Christian Jolibois
Ilustratzailea: CHRISTIAN HEINRICH
Ibaizabal, Bilbo, 2006

Mutilek ere irakurtzeko abenturak

Printzesak laguntzearen sorturiko «SOS Printzesak» agentziako Aglaeren kontuak agertzen zaizkigu Ibaizabal etxeak iazko urte amaieran plazaraturiko sail honetan. Agentziaren izena bera duen bilduma honetan lau liburu argitaratu dira, lauak Jose Antonio Sarasolak ongi euskaratuak eta Christian Joliboisek idatziak eta Christian Heinrichen irudiez hornituak. Liburu guztietan eskema bera errepikatzen da, Aglaek dei bat dela eta, edo bere bidaia batean izaniko enkontrubaten ondorioz arazoetan dagoen printzesa batekin egiten du topo, eta honi laguntzea erabakitzen du. Amaiera, jakina, zorientzua da, liburu hauetan, egituragatik, estiloagatik, tonuagatik eta argumentuagatik horrelakoa behar delako.

Aglae neska ausart, azkar eta modernoa dugu «SOS Printzesak» agentziako arduraduna, eta Napoleon, zerbizari beldurti, patxadatsu eta erdi-alperra, haren laguntzaile. Bikote xeble eta kontrajarria, neska dugu erabakiak hartzen dituen eta egoera zailtan aurrera egiten duena; Napoleon,

berri, gizon heldua, neskaren morroia eta beldurtia; abentura guztietan eragozpenak jartzen hasi eta amore eman behar duena nagusiaren erabakien aurrean. Honi guztiari misterio, bahiketa eta abentura guztietako beste protagonista neska bat, printzesa bat, dugula gehituz gero, argi eta garbi dago neska irakurleei zuzenduriko liburu sail baten aurrean gaudela. Heroiak neskak, protagonistak neskak, ereduak neskak dira... baina mutilik direnean mutilentzako liburuak direla esaten ez dugun bezala, agian honetan esan beharko genuke neska-mutilentzako saila dugula hau, izan ere ziur gaude mutilek ere disfrutatuko dutela Aglaeren abenturekin.

Maharajaren katua, Koroa bikingoa, Basamortuan galduta eta Xangaiko piratak dira orain arte argitaraturiko liburuak, eta izenburuetan beraietan igar daiteke liburuaren nondik norakoa, neurri batean behintzat.

Maharajaren katua liburuan, sailari hasiera ematen dion obran, ez da egileen aurkezpenik egiten, irudien eta testuen bidezko informazioa jasotzean irakurleak ikusi ahal izango baititu Parisen bizi den neska kirolaria («sasoian mantentzeko ohi dituen ariketak» egiten ari baita karate eta boxeoko kolpeak emanez) eta honen morroi xeblea. Informazio ugari irudien bidez jasotzen dugu, komikigintzaren eragina nabaria da Christian Heinrichen ilustrazioetan (Mikel Valverderen lana gogoraz digu) eta testuaren eta ilustrazioaren arteko oreka eta informazioa osagarria ederki lortua dago, irakurketa erraztuz, arinduz, eta osatuz.

Aglaek Safya printzesaren eskutitz bat jasotzen du, bere katua desagertu dela esanez. Aglae, orduan, Indiara joan eta katutxo berreskuratzen lagunduko dio. Prozesu horretan irakurlea harritu egingo

da jendearen jarrerekin, ikararekin, katu-txoaren argazkiaren aurrean... harik eta amaieran katutxo, ikaragarriko tigre delako deskubritu arte, Maharajaren apartamentu pribatueta (eta debekatueta) erditzera erretiratu den tigre aurkitu arte.

Umore tonua eta abentura dario liburuari, eta horrez gain irakurteraz da, testu arina ilustrazioekin ederki osaturik baitago. Alde horretatik gustura eta azkar irakurtzen diren liburuak dira sail honetakoak. Ez dute poetikotasunik, testu elaboraturik edo literaturtasun aldetik aparteko ekarpenik... hots, ez dira hizkeraren erabilera gaitik nabarmentzen diren obrak, baina hori gainditurik gelditzen da liburuon interesagatik, irakurlea harapatzeko eta abenturaren amaierara arte irakurtzen jarraitzeko duten balioagatik. Izan ere, neskek gustura eta atseginez irakurriko dituzten liburuak dira hauek eta... baita mutilek ere.

Xabier Etxaniz Erle

BEHINOLA aldizkariaren harpidetza orria.

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bete ondorengo fitxa.

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria: Posta-kodea:.....

BEHINOLA aldizkariaren urteko kuota (16 €). 2 zenbaki urtean.

Euskadiko Kutxaren honako kontu-korrontean sartu:

3035 0242 68 242 0 00247 |

eta bidali fitxa ordainketa-agiriarekin batera Galtzagorri elkartera.

Galtzagorri elkartea. Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943 471 487

Noeren ontzi bat parkean

Wendy Orr

Ilustratzailea: KERRY MILLARD

Itzultzailea: IÑAKI ZUBELDIA


Ibaizabal, Bilbo, 2006

Bakardade osagarriak

Wendy Orr idazle kanadiar beteroana ezaguna zen gure artean, duela urte batzuk argitaratutako *Nimen uhartera* eleberrigatik. Oraingoan dakarren liburua, *Noeren ontzi bat parkean*, 1994an argitaratu zen ingelesez, eta hurrengo urtean libururik onenaren saria jaso zuen «*Australian Children's Book Council Awards*» direlakoen barruan, eta gerora hizkuntza askotara itzulia.

Hiri handi anonimo bateko «eraikinik garaienak [...] azken solairuko apartamentuetako batean bizi zen Sofia», oso bakarrik sentitzen zen neska bat. Neba biki jaioberriek betetzen zuten gurasoen denbora gehiena, eta Sofiak leihotik ikusten zuen parke handi batera jolastera joatearekin egiten zuen amets.

Hiriko parke handi hartan, berri, «munduko animalia-denda guztien artean handiena,



bitxiena eta miresgarriena» zegoen. Jabeak Noe deiturako senar-emazte zaharrak ziren eta, hortaz, animalia-dendaren izena gehiegi pentsatu beharrik ez zuten izan: «Noeren Ontzia». Senar-emazteak zeregin harekin pozik bizi baziren ere, haien zoriona

ez zen betea; izan ere, «gauero-gauero, Noe jaunak eta andreak ezinezko gauza bat desiratzen zuten: bilobak edukitzea».

Elkarren ondoan bizi izan arren elkarren berririk ez duten pertsonak oso ohikoak dira hiri handietan, baina Sofiak, bere urtebetetzearen aitzakian, Noeren Ontziari bisita egitea lortu zuen, eta handik aurrera Noe senar-emazteekiko harreman gero eta estuagoa egin zuen. Bakoitzak, finean, bere hutsunea betetzea lortu zuen: «Nork esan du ezinezko desirak ez direla betetzen?».

Istorioaren garapena oso ondo eramanda dago, eta une hunkigarriak ditu. Zalantzak ditugu, ordea, abiapuntu gisa erabiltzen den intertestua, Noeren arkaren istorioa alegia, gaur eguneko meeei ezaguna zaien. Jatorrizko izenburuan dagoen hitz jolasa, «*Ark in the park*», ezinbestean galdu egiten da itzulpenean. Hala ere, «arka» oihartzun handiko hitza aukeratuko genuen beharbada. Eskertzekoa litzateke, orobat, hau bezalako liburu onen itzulpenak pixka bat gehiago zaintzea, irakurle guztien onerako.

Manu Lopez Gaseni

Txorimalo kutuna

Xosé Neira Vilas

Ilustratzailea: XAQUÍN MARÍN


Itzultzailea: PAKO ARISTI

Elkar, Donostia, 2007

Munduaren harmonia

Xosé Neira Vilas (Gres, Pontevedra, 1928) idazle galegoak urte asko daramatza umeentzako ipuinak idazten, 1962an *Memorias dun neno labrego* (1988an Labayruk *Mutiko baserritar baten oroitzapenak* izenburuarekin euskaratua) bere libururik ezagunena idatzi zuenetik. Ameriketan ibili ostean, bere herrian bizi da egun, bere izena daraman fundazioaren ardurapean.

Oraingoan Elkar argitaletxearen eskutik argitaratu duen *Txorimalo kutuna* hau haurrentzako obra xume xaloa da, amaierara arte umerik erabili gabe atondua. Protagonista



nista beldur emaile eta orenen uxatzaile patuari uko egiten dion txorimaloa da,

osaba Erramunek pikuak babesteko eraikia. Ontasun neurrigabea erakutsiz, zozoen adiskide egin da lehenbizi; izen aldakorra duen txakurrarena, gero; kilkerrarena geroago; eta, azkenik, katuaren adiskide. Mundua ezagutzeko gogoak bultzatuta, hegan hasiko zen, eta bere badaezpadako bizia eman zuen bi mutiko behartsuri zertxobait laguntzearen.

Edozein umek erraz irakurtzeko moduko zortzi atal laburren bitartez, Neira Vilasek harmonia unibertsala aldarrikatzen du: etsairik gabeko mundua, denek elkarri laguntzen dioten mundua, batzuen heriotza datozenen bizigai bilakatzen duen mundu-ikuskera ziklikoa.

Liburu atsegin honen itzultzailea Pako Aristi idazlea izan da, eta irudiak Xaquín Marín-en eskutik joan dira.

M. L. G.

Etzi


Karlos Linazasoro
 Ilustratzailea: ANTON OLARIAGA
 Elkar, Donostia, 2007

Elkar argitaletxea gazte literaturazko liburuak ari da argitaratzen Xaguxar bilduman, Euskal Herriko idazle ezagunek idatziak. Iaz, adibidez, Koldo Izagirrenak eta Harkaitz Canorenak izan genituen. Aurten, beste batzuk ditugu, horien artean Karlos Linazasororen kasua.

Argitaletxeak bilduma honetan gomen datzen duen adin tartea, baina, ez zaio, nire ustean, beti ondo egokitzen.

Lesterren logika gaztetxoentzako zen moduan (nahiz eta 10 urtetik aurrera gomendatzen ziguten), Karlos Linazasororen liburu honetan 12 urtetik aurrera dela diote eta, nago, samur irakur daitekeela 10 urterekin ere.

Etzi, izenburu iradokitzailea duen liburuaren atzean, Down sindromea duen gazte bat dago. Mattini amak egunkari bat oparitzen dio idazteko, baina «etzaio idaztea gustatzen», irakurtzen dugu liburuaren hasieran. Beraz, egunkaria Bruno bere anaiaz hitz egiteko erabiliko du, zergatik ezberdina den eta zertan berezia den kontatzen dio Mattinek egunkariari.



*Etzi*ren gai nagusia denboraren neurketa da, nola haur bati zaila egiten zaion ulertzea noiz iritsiko diren egunak, gauzak, edo pertsonak. Mattinek, gainera, opor sasoiari sufritzen du bereziki anaiairentzat, eta denbora pasa-edo, idazten du. Eta Bruno nolakoa den eta ez den azalduko digu, asko maite duela, «ez dituelako gaiztakeriak propio egiten, ezin zaiola utzi nahi duena egiten» e.a. Idazleak tonu didaktiko samarra erabiltzen du.

Miren nunca mais!

Pako Aristi
 Ilustratzailea: EIDER EIBAR
 Elkar, Donostia, 2007

Egun galiziar bat

Pako Aristik eskarmentu handia du haurrentzako istoriorik xumeenari ere gatzeta eta piperra ateratzen, eta horixe egin du oraingo *Miren nunca mais!* honetan. Funtsean, askotan galtzen den neska baten istorioa da. Halako batean, bidaia bat egitera abiatu da, gurasoekin batera, Santiagora. Bidean pare bat aldiz galdu eta gero, Santiagon gertatuko zaio galdualdirik luzeen eta garrantzitsuena, istorioari dagokionean behintzat. Bada,



Zenbait pasarte ez dira sinesgarriak egiten, adibidez, «ostirala zerutik zintzilika dago» bezalako metafora dotoreak nekez asmatuko lituzke mutiko batek: hor idazle dago. Halaber, Mattinen aitona-amonaren pertsonaiak ere ez dira oso sinesgarriak, amona elizkoia izatea, (beste garai batekoa, alegia), eta aitona Bob Dylanen jarraitzaile sutsua, enroilatua eta demasa. Txakurraren izena bera October izatea ere arraro samarra da haur baten belarrietarako.

Batzuetan poeta den idazlea antzematen da (aitonari gustatzen zaizkio «amonaren amatista-begiak, txilar isilaren usaina, limoien azal leuna, ikusi ezin diren gauzen mikaztasuna»). Karlos Linazasoro helduentzat sarri erabiltzen dituen ironia eta umore beltzetik aldentzen da haurren kontakizunetan eta ahots goxoa aukeratzen du, goxoegia, agian (aitatxo, amatxo, eta horrelako errekurtsioak). Baina nago liburu honetan tonua aurkitzea falta zaiola.

Bukaera irekia da, eta azkeneko esaldira arte ez dugu jakingo itxarrotearen arrazoiaren zergatia, orduan argitzen baita denboraren pisua zergatik egin zaion hain astuna egunkariaren protagonistari.

Ilustrazio ederrak, Antton Olariagaren sinadura daramatenek ohi duten moduan.

Asun Agiriano

anekdota hori ederki ustiatu du Aristik liburu entretenigarri bat osatzeko.

Miren protagonistak hamar urte ditu eta, galtzen denetan, bere kabuz ibiltzeko gai dela erakusten du istorioan zehar. Ez behar bada ongi hezitako neskatxa bati eskatuko litzaiokeen neurrian, baina tira. Eta hortxe dago, hain zuzen, liburuiko gatzaren gakoa: galduta dabilen bitartean biziraun ahal izateko, Miren ez da politikoki zuzena, ezta gutxiagorik ere. Batean makila batez jotzen du treneko gizon biboteduna, beste batean bokata osten dio txangoan doan mutiko bati, beste batean irakasle bat jotzen du, beste batean udaltzain bibotedunari (bibotea izatea maltzurkeriaren marka, nonbait)

ostikoak eta gaztainak botatzen dizkio... baina kontzientzia txarrik ez. Hori guztia, gainontzeko gertakizunekin batera, umorez zipristindua: horra istorioko piperra.

Orain arte azaldutako efektu erakargarria lortzeko, «hartzaile bakarraren» eredu jarri du jokoan Pako Aristik: helduak alde batera utziz edo bigarren planora eramanez, itxuraz autonomia den ume bat aurkeztu digu, halako ume batek helduen kontrolpetik kanpo dagoenean egingo lukeen guztia eginez. Formula guztiz arrakastatsua da ume irakurleak erakartzeko; bitartekari oniritzia eskuratzeko, berriz, ez hainbeste. Haur literaturaren historian eredu horren adibide paradigmaticoak bilatzen hasita, «Pippi Kaltzaluz» izango litzateke lehenengo: gurasorik gabe eta adiskideekin batera, bere kabuz (ondo samar) bizi den neskatoa;

burura datorren bigarren adibidea, berriz, «Bostak» saileko neska-mutilak dira: oportretan gurasoengandik urrun zeudela aprobetxatuz, bizimodu itxuraz autonomia egin eta era guztietako misterioak argitzen jarduten zuen taldea.

Miren galduta dabilen bitarteko narrazioari aplikatu dakioke arestikoa; izan ere, gurasoek aurkitu egiten dute azkenean, eta orduan azalpenak eta amaiera zoriontsua bestelako tonuan baitatuz.

Miren nunca mais! liburuari buruz esandakoak gain, Galiziako Santiagon ibiltzeko gidaliburu ona dela ere esan daiteke, baita oinarrizko galegoa ikasteko ere (bitxia: liburuaren hasieran Miren ez da gai azkar hitz egindako gaztelania ulertzeko, eta bai,

ordea, bere ibilbidean zehar entzundako galego guztiaz jabetzeko). Eta, hori ez ezik, neska narratzailearen burutik ateratako gogoeta gozagarri batzuk ere aurki daitezke, hala nola: «Zertarako paseatzen ote dute agureek geltokietan? Ziur aski gaztetan etxetik alde egin nahi izan zutelako, baina trenera igotzen ausartu ez zirelako» (40. or.). Eta neskatoa koman egon zen batean bizi izandako esperientzia mistikoaren berri ematen duen pasarte ere aipatzekoa da.

Amaitzeko, akats txikien atala «aurkitu desberdintasunak» modura kontatuko dut: zein da testuko udaltzainaren eta marrazkiko udaltzainaren arteko desberdintasuna?, eta zein da benetako Pako Aristiren eta liburuiko Pako Aristiren arteko adin aldea?

M.L.G.

Tres hermanas ladronas

Txabi Arnal


Ilustratzailea: ELENA ODRIOZOLA

OQO

Xarma misteriotsua

Harriduraz bete nauen liburua da Txabi Arnal idazlearen lan hau. Bete ere egin nauena. Gasteiztarra da idazle hasiberria; harenak dira, besteak beste: *Ardiak zenbatzen lorik hartzen ez baduzu*, *Marixka poetisa edo Ilargi adarra*. Baina liburu honek badu halako xarma berezia, estrainioa, definitzen zaila dena.

Alde batera, izenburutik beretik ipuin tradizionalen oihartzuna dakarkigu –zenbat ipuinetan ez ote dira hiru protagonista, hiru senide agertzen–; *Enperadorearen traje ikustezina* ere ekar lezake gogora; eta paralelismoak, eta errepikapenak. Baina, beste alde batera, Elena Odriozolaren ilustrazioek ez digute inongo mundu zaharrik ekartzen, ahizpak gaur egungoak izan daitezke –batik bat aktorea–, ohi bezala finezia eta dotorezia eskuz esku datozkigu, eta ipuinak, azkenean, bestelako dimentsio bat hartzen du. Nolabait



adieraztearren, iragana-oraina teinkaturik ageri dira testuan eta ilustrazioetan.

Baina nola laburbil daiteke berez hain laburra den ipuin hau, nola laburbildu formato txikiagoan etorri arren irudi liburu ere baden hau? Lehenik eta behin, arestian esan bezala, hiru ahizpa bitxi ditugu, izena ere bitxia dutena: Oculita, Lucía eta Justa. Baina

agian oso egunkoa ere baden helburua dute hirurek ere: udako eguzkiak baino distira gehiago egitea, alegia, itxurak egitea eta jendea liluratzea... Estrainiotasuna beharbada hortik dator: zahar kutsukoa dirudien arren, gaia oso da egungoa, eta iradokitzailea, eta irakurketa oso du zabala. Baina badirudi lehenari oraina gailentzen zaiola: hiru protagonistak neskak dira, izena ez ezik Fernández deitura ere badute, eta ipuin tradizioaletan oso ohikoak ez diren ironia eta hitz jokoak ditu lagungarri. *Tres hermanas ladronas* iragana-oraina, ipuina-poema dikotomia horietan eraikia dago, eta beharbada hortixe dario misterio kutsu hori.

Baina politikoki ez-zuzenetik ere badu zerbait: hiru protagonistak mutilak ez, baina neskak dira, eta lapurrak! Eta hirurak biluzik bainatzen dira beren urrezko txanponetan, udako eguzkiaren distira berenganatzearen: biluzik! Baina egun batez Luciak –ea nola edo hala laburtzerik lortzen dudan–, hiruretan gazteenak, liburu batean irakurri zuen beren ametsa iritsezina zela, eta nekazariak direla munduko pertsonarik

zoriontsuenak. Idazleak hor izan zezakeen ikuspegi bukolikoa saihestuz, Justa landetxe batera, joan, joango da, baina alboko nekazariari lapurtzen jarraituko du, eta haur bat izango du gero alboko nekazari «lapurtu» horrexekin.

Narrazioak, une honetan, haur jai berria hartzen du ardatz, eta horixe bilakatzen da hiru ahizpen zoriontasun iturri. Berrito


Hogeita sei urte geroago

Karlos Linazasoro
Erein, Donostia, 2006

Bizitzaren gorpolean

Bere ohiturari jarraituz, Karlos Linazasorok beste kontakizun bitxi bat proposatu digu *Hogeita sei urte geroago* izenekoan. Bitxia, lehenbizi, hautatutako narratzailea jai gabeko haur-edo bat delako. Eta, narrazioak, sortua izan zen momentutik («Babarrun bat, dilista bat, arroz ale bat baino tikiagoa naiz») erditua izango den unera bitarteko aldia hartzen du. Hilabete horietan zehar gertatu ohi diren gauzak hartzen ditu hizpide: predictor-a, ginekologoari egindako lehen bisita, amaren goragale-zorabio-kapritxoak, albistearen berri ematea, sexua jakiteko ekografia, pozak eta nekeak... den-denak, esan bezala, jaioko den umearen ikuspuntutik. Tankera horretako narrazioari neurria hartzea zaila da, eta akaso horregatik ez da guztiz sinesgarria gertatzen (halakorik sinesgarri gertatu beharko balitz; balio bedi, bide batez, narrazioaren bitxi azaltzeko); aste gutxi batzuk dituela, hauxe dio: «Ezin dezaket zuhur-zuhur esan, baina uste dut hiruzpalau aste daramatzadala hemen sarturik. Gutxi gora-behera, hogeitau egun. Edo hogeita bost. Ezinezkoa da xuxen-xuxen jakitea, hemen barruan berdinak dira-eta gauak eta egunak. Honaino ez dira eguzkiaren errainuak sartzen, oker ez banago gorriak eta urdinak direnak, kolore askotakoak» (6. or.). Handik gutxira, berriz, beste hauxe dio ginekologoari egindako

ere iradokizuna. Baina, esan bezala, iradokizunaren ahalmena ehunkoiztu egiten da marrazkiekin, hain daude keinuz beteak, hain egokituta istorioari. Honi guztiari, bestalde, letra tipoen erabilera berezia gehitu behar zaio: letra lodia, etzana, lerro apurtuak, orripeko zenbakirik ez... (xurga-



lehen bisitan: «Hogei bat minutu itxaron genituen azal-kolore desberdinetako haurren argazkiez betetako itxarongelan: umetxo zuriak, gorriak, beltzak edota horiak. Ez nuen ikusi umetxo berde edo urdinik, eta benetan arraroa iruditu zitzaidan» (15. or.).

Bitxia da (baina jadanik ez hainbeste), bigarrenik, erabilitako estilo bereziagatik: Karlos eta Karmele senar-emazteen arteko elkarrizketa ez-titsu-hanpatu-parodikoak dira horren ezaugarri bat, *Bota gorriak* eta *Bestiariora*. *Hilerrikoiak* liburuetan antzekoak aurki badaitezke ere. Senar-emazteek, narratzailearen gurasoek, primeran ulertzen dute elkar, eta partitura bat balitz bezala interpretatzen dute unean uneko egoera.

gailuak irensten dituen hitzen detaila oso bihurria da). Iragana-oraina, ipuina-poema, mundu zahar eta berria. Eta, azken-azkenik, papera, formatoa... .

Estrainioa, bitxia, hipnotizatzailea da Galiziatik OQO argitaletxetik datorkigun proposamen artistiko hau eta, saiatu arren, oraindik ez dakit oso ongi zergatik.

Laura Sagastume

Gainera, dituzten lanbideek (ume txikien hezitzailea bata, zaharren hezitzailea bestea) aukera ematen dute kontrastez beteriko elkarrizketa biziak sortzeko.

Estilo horretako beste ezaugarri bat pertsonaietako batek Karlos izena izatea (egilearen fikzionalizazioa deitu nion nik aurrekoan), eta pertsonaia horrek idatzitako lantxoak bigarren mailako testu gisa tartekatzea. Oraingoan hiruzpalau ipuin labur dira senarrak emazteari kontaktzen dizkionak, xalo-xaloak; baina *Bestiariora*. *Hilerrikoiak* hartakoek funtzio estrukturala zuten.

Azkenik, Linazasororen pertsonaia bitxiaren galeria handituz doa liburutik liburura. Orain artekoek, *Hogeita sei urte geroago* honetako beste batzuk gehitu behar zaizkio, hala nola entziklopedia saltzaile xeblea, edo oraindik jai ez den narratzailearen aitona txakolin zale zalapartatsuak.

Amailerako kapituluak argitzen du liburuaren titulua, eta baita liburu bera eta bizitzaren ikusmolde zikliko bat biribil-tasunez ixten.

Manu Lopez Gaseni

Miss Txatarra

Xabier Mendiguren
 Ilustratzailea: PATXI GALLEGO
 Elkar, Donostia, 2007


Alderdi basatiaren berri

Xabier Mendiguren Elizegi idazle oparoa titulu batzuk besapean azaldu zen udazkeneko nobedadeen plazara. Horietako bat *Miss Txatarra* gaurkoan iruzkingai hartu dudana hauxe.

Miss Txatarra liburuak Katixa neskatxaren berri ematen digu, neskaren beraren ahotan. Idazlan laburra izanda ere, kontu asko aipatzeko lana hartzen du, zuzenean zein pertsonaien oroimenaren bitartez. Ia hasieratik, Katixa neska marjinal gisa azaltzen zaigu: txatarrerria baten gaineko solairuan bizi da, aitarekin, eta aita bisitatzeraz etortzen diren *heavy* motozaleekin, elkarrizketa gordin eta garagardoz inguratutik. Bizimodu horrekiko kontrapuntuan, larunbatero bitzta ordenatua eta zorrotz samarra daraman amonarenera joaten da, okasiorako soinekoa jantzirik. Istorio honetako hirugarren eszenatokia eskola da, eta han baditu lagun onak eta ez hain onak, ohikoa denez.

Gatazka, edo korapiloa, Katixak bere amaren berri jakin nahi duenean hasten da: nolakoa zen eta, batez ere, nola hil zen. Galdera horien aurrean, ordea, isiltasuna eta haserrea besterik ez du topatzen, harik eta, azkenean, aitaren lagun motozale haietako baten egia kontatzen dion arte: «Astillas txute txar baten akabatu zuen. Heorina adulteratua, edo gaindosia, edo ez-dakit-zer. Maitek zaldia uztea erabaki zuen orduan, eta hor kristoren laguntza eman zion zure aitak. Baina ordurako, nahiz eta jakin ez, barruan zeukan xomorroa. —Xomorroa? —Hiesa, Sida, Aids. Erabilitako xiringekin kutsatuta edo». (64. or.).

Hortik aurrera galdera gehiago datozkio gogora Katixari: ama zer ote zen, amonak deskribatutako neska fin eta zintzoa, ala bizitzaren alderdi basatian zorte txarrez ibilitako neska bat. Aita ote den bere aita, eta beste asko.



Azkenean, bildutako informazio guztiarekin, konklusio batzuk ateratzen ditu Katixak: amak bizimodu ilunera egindako bidaia hura amonaren «agintekeria» eta «zurrunkeriaren» ondorio bat izan zela, kausa-ondorio erlazio aukeran estuegian. Hala, lotarako orduan aitarekin batera ohean dagoela, azken gogoeta hau egiten du: «Eta momentu horretantxe, asko maite dudala esan behar nionean, bera ez dela guraso estu-zurruna eta ni ez naizela ibiliko inoiz bizitzaren alderdi basatian, hori dena esan behar nion uenean bertan lo geratu naiz, lo goxoan, aitaxoren beso artean». (70. or.)

Miss Txatarra liburuak era askotako tabuak (gaixotasunak, joera sexualak, heriotza, borroka armatua, gerrak...) kontagai dituen errealismo kritikoa kokatu du bere burua. Ez dakit, ordea, asmatu duen. Mendigurenek ausardiaz jokatu du gaia planteatze hutsarekin, ahalegin bat egin du, ez dago dudarik. Gauzatzeko moduari, baina, zenbait eragozpen jarriko nizkioke.

Alde batetik, egileak azkarregi jokatu duela iruditu zait, hain orrialde gutxitan hainbeste gauza proposatuta. Gaiak beste tempus bat beharko luke, nire ustez. Helburu didaktiko-moral bati begira jarritako testu

baten antza hartzeko arriskua dago bestela, aita eta semearen arteko solas haietako bat bihurtzekoa. Bigarrenik, eta arestian esandakoaren haritik, neska protagonistaren jarrera dago: 10-11 urteren bueltan, hasieran gai da galdera handiak egiteko, eta azkenean gai da erantzunak zirkinik egin gabe onartzeko; helduegia iruditu zait aukeran. Azkenik, «10 urtetik aurrera» horren bidetik, ulermen arazoak eta bitartekariaren errezeloak sumatzen ditut: adin horretako irakurle batek aita eta bere lagunaren hizkera eta korapiloaren muina bera nekez ulertuko duelakoan nago, eta, ulertuta ere, bitartekari kementsuak beharko dira obra ausart honi bidea egiteko.

M.L.G.

Rita tenista

Mikel Valverde


Ilustratzailea: MIKEL VALVERDE
McMillan, Madril, 2006

Marrazkilaria idazle

Komiki munduan hasi zen (*TMEO*), hainbat liburu ilustratu zuen (*Xola, Banbulo, Garmendia...*), *Zazpika* gehigarrian ere luzaroan aritu zen Andres errinzeroaren abenturak plazaratzen, baina nik uste *Gansterren ihesi* liburuaren bitartez agertu zitzaigula istoriogile eta idazle, eta bere dohain hori batez ere *Paula en Nueva York* irudi liburu sarituarekin nabarmendu zela; eta, orduan nabarmendu baldin bazen, orain idazlea sendotu egin dela.

Gurean seguruenik Asun Balzola zena izan da marrazketa eta idazketa gehien uztartu dituen egilea –Jokin Mitxelenak ere egin du sartu-irtenik idazketaren alorrean–, baina argi dago Rita bilduma honekin Mikel Valverde idazleagotu egin zaigula. Bilduma orain arte testu liburuei atxikitako MacMillan argitaletxe madrildarrak argitaratu du –Juan Kruz Igerabideren *Querido Tolo* ipuinarekin batera–, eta begien bistan dago azal gogorretan eta gustu handiz mamitutako bilduma dela, eta hor topatuko ditugu, hurrenez hurren, *Rita tenista*, *Rita gigante*, *Rita en el Polo* eta *Rita y los ladrones de tumbas*, denak ere 67 orrira ekarriak.

Ezer baino lehen, esan beharra dago pertsonaia oso ondo eraikita dagoela: zortzi urteko neskato tximaluzea, beltzarana, ipurtestua...; eta, horrekin batera, haren familia, gurasoak, bost urteko neba, Oscar, eta azken bi liburukietan agertuko den osaba Daniel ikerlaria. Hala bada, Rita oso ondo eraikita dago bai literarioki bai bisualki, eta horrek irakurle gaztea erakarri egiten du hasiera-hasieratik. Zein irakurle, baina? Esan bezala, pertsonaia nagusiak zortzi urte ditu, baina bildumaren kontrazalean ez zaigu adinik adierazten, eta testua luzea da. Esango nuke zortzi urteko oso irakurle iaioek irakur dezaketela, erraz irakurri esan nahi dut, eta errazago hortik aurreragokoek berenganatuko dutela. Edozein modutan,



marrazki bizi koloretsuek arindu egiten dute irakurketa, eta testuan agertzen ez diren keinuak eskaintzen dizkigute: lagungarri dira, beraz, baina baita osagarri eta pizgarriak ere.

Eta Ritak ospetsua izan nahi du, rock star bat alegia, eta horrek nahigabea ekarriko dio berari, eta gaizkiulertu baten eraginez –gitarra baten kutxa eta erraketa batena antzekoegiak baitira–, umore finaren bitartez, horrek jakinmina piztuko dio irakurleari. Baina lehen liburukian tenislari bilakatuko zaigun pertsonaia txiki sentituko da bigarrenean, txikiegi aukeran, eta alderdi fisiko horren gabezia nola gainditu modu fantasiotsuan argituko da azkenean. Lehen bi ale hauek mezudunak dira –batzuetan oso esplizitoak ere bai–, eta arazo etikoak nahiz fisikoak osagai fantastiko baten laguntzaz konponduko dira: «*Cuando los niños tienen algún problema o una disputa acuden al estanque, y allí, al atardecer, las ranas los escuchan y les dan sensatos consejos, pues son unas ranas muy sabias*».

Nolabait ere sumatzen denez, Valverderen estiloa bizia da, zailtasun handirik gabea, egitura ere xumea da, eta lineala, eta bai elkarrizketa ugariak bai marrazkiek arindu egiten dute irakurketa. Eta irudipena dut

irakurketa are gehiago arintzen dela azken bi liburuetan, eta abentura presenteago egiten dela, izan ere Rita Ipar Burura eta Egiptora joango da. Gainera, *Rita en el Polo* irakurtzean sarri gogoratu naiz egileak berak ilustratutako Atxagaren *Banbulo: Ternuako penak* gogoangarri harekin. Esan bezala, gaizkiulertuek indar handiagoa hartzen dute azken liburuotan, ekintza gehiago dago, eta beharbada gusturago irakurtzen dira.

Hitz gutxitan adieraztearren: kontu handiz ondutako bilduma bizi eta arin bat dugu Ritarena, irakurleak egiten laguntzen duten horietako bat, Mikel Valverde idazle erakusten diguna. Hurrengo istorioen zain geratzen gara.

Laura Sagastume

Ilunorduak eta argilaurdenak


Joxantonio Ormazabal
 Ilustratzailea: ELENA ODRIOZOLA
 Elkar, Dostia, 2007

Gazteentzako poema helduak

Joxantonio Ormazabal (Zegama, 1948) euskal haur eta gazte literaturan aurkezpenik behar ez duten idazle horietakoa da. Seve Callejaren esanetan, «Euskal haur-literatura gauzatu dutenetakoa dugu Joxan Ormazabal». Liburu asko eta askoren egile eta itzultzailea izan da 80ko hamarkadaz geroztik, eta bere talaiak egungo haur-literaturaren panorama ezin hobeto ezagutzeko aukera ematen dio.

Gaurkoan iruzkingai dudan liburua poema-bilduma izanik, ezinbestekoa da aurretik idatzi dituenekin alderatzea. Oraingo hau oso bestelakoa baita, izan. Hasteko, hosi-kidetasun eta errimak lanabes izaten jarraitzen badu ere, egileak ia erabat alde batera utzi ditu aurreko poema-liburuetako forma herrikoiak, *Hitzak jostailu* (1994) delakoan oso presente zeudenak, *Txoko txiki txukuna* izenekoan erakutsitako bidean aurrera eginenez. Beste alde batetik, irakurlearen heziera zuzen bideratzea helburu zuten osagai moralistak ere ia guztiz desagertu dira (tankera horretako pare bat poema besterik ez dago oraingoan). Hirugarren aldaketa nagusia naturako elementuen funtzio-aldaketan datza: aurrekoetan egunaren eta gauaren arteko gurpilik edo urtaroen ziklikotasunak jaio-hil-berpiztu etengabeko berrikuntzan zegoen munduaren metafora baziren ere, *Ilunorduak eta argilaurdenak* honetan ibilbide lineala agertzen zaigu, jaiotzatik heriotzara daraman bidea, eta esperantzari zabalduetako zirrikituak oso bakanak dira («Haurdun dago mundua / neguko isiltasunean», 24. or.).

Izan ere, eta hor dago gakoa, poema-liburu hau jada ez da haurrentzat. Kontrazalean agertzen den «12 urtetik aurrera» hori ere motz geratzen da, poemarik poemako irakurketari bainoago, osotasunak irakurleari uzten dion ezinegonari erreparatuta. Tituluak iragartzen duen aldartea berretsi egiten da



gero poema askotan, baina garden azalduta geratzen da 33. orrialdekoan:

«Urpekariak
 aldika-aldika
 burua ateratzen du
 ur azpitik.
 Nik ere
 nahi nuke
 ilunordu bakoitzeko
 argilaurden bat,
 arnasa hartzeko».

Funtsean, topiko klasiko bat, *tempus fugit* edo heriotzaren aurreko larritasuna da poema-liburu honetan nagusi, itxaropenari utzitako leiho txiki batzuekin, hala nola zoriontasuna gauza txikietan bilatzea, edo zerua munduan bertan aurkitzea.

Bestalde, keinu intertestualak eta, nolabait esateko, metaliterarioak ere aurki daitezke hemen: ilargi islatua da horietako bat, *Hitzak jostailu* hartan baino irudi landuago batean (26. or.), edo idazle eta poetez tartekatzen diren poema mingotsak. Horrekin batera, jarrera demagogiko samarrak sumatu ditut, hauek ere aski klasikoak: naturaren ondoko bizimodua / hiriko bizimodua (38, 62), edo poeta errugabea / mundu gaiztoa (49).

Baina, gazteentzako liburua izanik, maitasun-poemak ere nabarmendu behar dira, noski. Indarrez beteak eta iradokit-

zailak dira beti («Ilun-ilun ez / argi gutxi bai, / zuk luzatu didazun / eskua ikusteko lain», 29. or.), baita desamodioaz aritzen denean ere:

«Badakit zure bihotzak
 beste itsaso batean
 egiten duela igeri» (85. or.).

Amaieran, zalantza: badirudi, bai, atetxoa zabaltzen zaiola ilusioari; suizida bati buruzko poema hantxe bertan, ordea.

Laburbilduz, lehengo baliabide berak jokoan, poetaren heldutasuna nabaritzen da liburu honetan, eta gaiei tonu sakonago batean heltzeko beharra.

Elena Odriozolaren irudiek ere, testuek bezala, gizakiaren hauskortasuna erakutsi nahi dutela dirudi, amaigabeko zuhaitz-adarretako oreka zailean. Grisen gama zabalaren atzean, haatik, irakurle hilkor honek inoiz ikusi ezin izango dituen koloreak sumatu uste izan ditu.

M.L.G.


Diarios de la calle

Erin Gruwell & Freedom Writers
Elipsis, Bartzelona, 2007

Arutaretik

Txiripaz ikusi nuen. Azalean, zenbait eskola mahai hutsik ageri ziren eta, gorago, izenburua: Diarios de la calle, eta are gorago egileak: Erin Gruwell eta Freedom writers. Zalantza egin nuen: ez zegoen literatura atalean, pedagogiarenean baizik. Erosi nuen, irakurri nuen eta, berriro ere, zalantza piztu zitzaidan: orriotara ekarri, ez ekarri; baina ikusten duzu erabakia zein izan den.

Kalifornia: Long Beach. Wilson institutua. Erin Gruwell irakasleari oso errealitate gordina egokitu zaio ikasgelan. Ikasle gehienak oso familia desegituratuetatik datoz, gehienak arrazaren –gutxiengoen– arabera elkartzen dira eta droga, bortxaketa eta hilketak artean bizi dira. «Ghetto-koak», horra nola esaten dieten. Irakasle gazteak, osterak, etsi beharrean, literatura hartuko du bidelagun: alde batera, oso egoera desberdinei aurre egin behar arren, holokaustoarekin zerikusia duen *Anne Franken egunkaria* (Erein) hartuko du ardatz –beste hainbeste film eta obra bezala–, eta *Zlataren egunkaria* (Desclée); artean ez zekien ikasleak zenbateraino identifikatuko ziren liburu hauetako gazte protagonistekin. *Zekale artean harrapaka* (Elkar) ere ekarri zien, eta hona hemen ikasle baten egunkariaren pasartea: «*Le éché una mirada a la cubierta y lo dejé en mi pupitre, cubriéndose de polvo. Pensé para mis adentros: ¿Qué puede enseñarme este libro? La verdad es que no perdí el sueño por leerlo, pero de algún modo me decidí a cogerlo. Como suelo hacer, leí primero el final. Después de echar un vistazo al tipo de vocabulario que Salinger usa, me quedé enganchada. ¡Hey! Este es el tipo de libro que me gusta. Enseguida empecé a respetar al autor a causa de su singular estilo, por no mencionar el hecho de que él no intentaba lanzarme ningún estúpido sermón con mensaje (ya sabes, esos intentos por salvar a la juventud de hoy). Los finales azucarados en los que se comen perdices me hacen vomitar*». Beste aldera, irakurketarekin



batera, idazketa baliatu zuen irakasleak, eta hor ere, errezelok errezero, sekulako askabidea eskaini zien ikasleei: «*Mientras su pene entraba y salía de mi boca, me vinieron a la mente las palomitas de maíz que me prometió...*».

Izenburuak dioen bezala, liburuan ikasleen egunkariak biltzen dira, 142 zati anonimo eta gordin. Guztiak lau urtetan zehar bildutakoak dira, eta urte bakoitzaren atarian irakaslearen beraren hitzaurrea-edo dator. Horien bitartez jakingo dugu, besteak beste, ikasleekin ez ezik irakasleekin ere gogor borrokatu behar izan zuela Gruwell andereñoak. Lekukotasunen artean, bada hitzak atzekoz aurrera irakur –baita hitz egin ere– ditzakeen ikasle bat, «eM omall noraA», eta nik uste dut horixe dela liburu honen dohaina, errealitatearen infrentzuari, errealitatea beste modu batez interpretatzeko eta irakurtzeko aukera ematea hain zuzen ere.

Zoritxarrez, hain errealitate gordina testu –sarri– zuzenegietan emana zaigu, eta sinesgarritasunak huts egiten du zenbaitetan; bestalde, liburuaren espiritua –sarri– iparamerikarregia da, hau da, heroitasuna eta heroi hitzak maizegi agertzen dira; baina,

gorabeherak gorabehera, testuari benetakotasuna dario, eta alde horretatik irakasle, guraso eta ikasle jendearentzat da gomendagarri. Amaiera ere aski zorientsuada, izan ere hainbat lagun ghettotik irten eta unibertsitatean sartu ahal izan ziren.

Txiripaz ikusi dut. Azaleko argazkian, hainbat haur eta gazte errukarri, eta gainean: *Voces robadas: diario de guerra de niños y adolescentes desde la 1ª G. M. hasta Irak*, eta are gorago Zlata Filipovic bera, antologoen artean... Zalantza egin dut: ez dago literatura atalean, pedagogiarenean baizik. Gero, literaturarenean, euskaratu berria den John Bonyneren *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa* ikusi dut. Biak hartu ditut. adapzeadaB.

Laura Sagastume

Bagdadeko aurpegiak

Juan Kruz Igerabide
Erein, Donostia, 2007


Bagdadarren zauriak

Ipuin, edo nobela, baten hasierak sarritan markatzen du giroa. Herri ipuinetan, esaterako, beste garai eta errealtate —edo fantasia— batera eramaten gaituzten bezala oraingo honetan, Juan Kruz Igerabidek bete-betean sartzen gaitu egungo Bagdad: «Lehegailu batek nire familia ia osorik suntsitu baino mende asko lehenago», eta, ondoren, XXI. mende hau baino asko lehenago bizi izan zen Ali Khjjam poeta, filosofo... gaztearen bizitzaz hitz egiten hasten da nobela honen narratzailea, Ali Khjjam horren ondorengoko neskatxa bat, bere familia ia guztia galdu duen Jasmina gaztea.

Liburuko 36 kapituluetan bi istorio, agian bi historia esan beharko genuke, kontatzen zaizkigu. Bata Jasminarena, umezurtz bere anaia txikiarekin batera umezurtegi baino presondegia zaión etxe batean bizi dena bonben arteko Bagdad; bestea, Ali Khjjamen historia, Erdi Aroko Bagdad bizi, jakintsu eta aberatsean bizi izan zen Ali sufi santua. Bi istorioen arteko lotura liburuko lehen kapituluaren adierazten du Jasminak, bere arbasoaren historiari hasiera ematen dionean; geroago, bi narratzaile ezberdin erabiltzen ditu Igerabidek liburu osatzen duten bi istorioetarako, batean, lehen pertsonan gaur egungo gertakarien berri emate digun Jasmina dugu, bestean, hirugarren narratzaile orojakilea, Ali Khjjamen berri emango diguna.

Jasminaren historia gaur egungoa da, Bagdad inbadituarena, kalean tiroketak eta bonben eztandak entzuten diren hiriarena. Jasmina eta Alik —arbasoaren omenez izen hori jarri baitzioten— familia guztia galdu eta umezurtegian egon behar dute. Jasminak egungo errealtate bortitzaren berri emateaz gain etxean, txikitatik, jasandakoa ere azalduko du poliki-poliki. Irakurleak susmoa du familiak asko sufritu duela, tratu txarrak, bortizkeria, alkohola... eta amaren

14 +



galerak, bai eta Aliren egoera berak badutela zerikusia bortizkeria horrekin.

Ali Khjjamen istorioa ere bake eta gudei buruzkoa da, inbidia eta adiskidetasunarena. Ali Khjjam jakintsuak urteetan lagundu zion Omar ben Saadi kalifari, anaiak hankak moztu eta begiak kendu zizkion kalifari; eta horrela, epaile gorena izango da Ali, kalifaren aholkularia, kobazulo batean bizi den sufi santua... baina, XXI. mendean bezala bortizkeria —mota eta estilo ezberdinetakoa— presente dago.

Bagdadeko aurpegiak lanak irakurlea berehala harrapatzen du. Kontatzen diren bi istorioak erakargarriak dira, agian batetik bestera salto egin behar etengabe horrek neka dezake irakurlea ez baitago bi istorioak lotzen dituen hari garbirik. Jasminaren kontaketa bide bat egiten du eta Ali Khjjamen istorioak, honen gogoetek, beste bat. Hala ere, istorio biek harrapatzen zaituzte, narratzean erabilitako bizitasunak aurrera egitera animatzen zaitu: «Ez nauzue harrapatuko, zerriak, ilundu du, oso ilundu ere, eta ez nauzue aurkitu. Pixka bat lo hartu du, gogor jarri naiz, bina gero herrialde berdea amestu dut eta askatu egin naiz, eta orain

esna nago. Garbigailutik irten, korridorean barrena ilunpetan aurrera joan, eta ume txikien gelara igotzen ari naiz zaintzailea zurrungaka ari da; anaiaren ohera hurbiltzen naiz; ez dago, Ene Ala!, ez dago, ez dago» (120. or.). Izan ere liburuak badu intriga puntu bat: Jasmina eta Aliren etorkizuna zein izango ote den. Badakigu narratzailea, historia kontatzen diguna Jasmina dela, baina ez dakigu zein izango den drama honen amaiera, eta liburu hau drama bat da. Gaur egungo drama.

Amaiara tristea du nobela honek, baina itxaronpetsua: «mutil batek dantza egitera eraman nahi nau. Begietara begira erantzun diot, eta esaten diot zauriak oraindik itxi gabe ditudala, denbora behar dudala» (171. or.), baina Jasminaren zauriak itxiko dira.

Xabier Etxaniz Erle

Pellot eta enperadorearen bahiketa

Iñaki Mendizabal Elordi
 Ilustratzailea: IGOR FERNANDEZ
 Ibaizabal, Bilbo, 2007

Abenturetako klasikoa

Duela urte batzuk Patxi Zubizarretak esku-ratu zuen HGLko Euskadi saria *Gizon izandako mutila* nobela paregabearekin. Bandiduen istorioak kontatzen zituen liburu hura etorri zait gogora *Pellot eta Enperadorearen bahiketa* hau irakurtzean. Oraingoan, baina, bandiduak itsasokoak ditugu, kortsarioak. Baina orduko hartan bezala narrazioak eta abenturak alde batetik bestera eramaten gaituzte, bizi-bizi, disfrutaraziz.


Iñaki Mendizabalen lehen gazte nobela dugu hau, eta idazle honek aurretik zituen bi liburuak (*Euskal piratak eta Baleazaleak eta kortsarioak*) ederki erabili ditu abenturazko nobela hau idazterakoan, izan ere Lapurdiko kortsario bat, Pellot, dugu liburuiko protagonista nagusia.

Nobelako argumentua oso simplea da, Napoleon Elba irlan dago erbesteratuta eta haren jarraitzaileek handik ateratzeko asmoz kortsario bat bidaltzen dute. Pellot kortsarioak, atzetik duen polizia saihestuz, Elbarako bidaia egingo du eta han Frantziako itsas armadako ontziei aurre egin.

Konspirazioak, abenturak, traizioak, adiskidetasuna, ausardia... abentura nobeleko elementuak ederki konbinatu ditu Mendizabalek lan entretenigarri eta eder honetan. Irakurleak hasieratik izango du Pellot eta haren lagunekiko identifikazioa; euskaldunak, hitzezko pertsonak, abenturazaleak... eta horrela borrokaren—traizioaren—une gogorretan haien aldeko jarrera sentiarazi. Bai eta irakurtzen jarraitzeko gogoan izan, jakin-minak bultzaturik amaierara arte irakurtzeko gogo.

Nobelak badu antzinako abenturazko nobelen antza, *Altzor uhartea* ere, askorentzat inoiz izan den gazte literaturako abentura liburu onena, etorri zait gogora, baina oraingoan nobela honek badu modernotasunik, Pelloten abenturak hirugarren pertsonan kontaturik dauzkagu, baina gertakarien

14 +



lehen liburuak ere egiteko baliagarriak izan zitzaizkionak eta oraingoan nobela girotzeko aprobetxatu dituenak.

Ederki pasa dugu abentura hauek irakurtzen, gozatu, une atsegina igaro... baina, egileak berak bultzatuta, traizioak, gerraz edo anbizioaz ere gogoeta egiteko parada eskaini digu liburuak. «Zuok aberriazale aluok zarete txarrenak, piratak baino gaiztoagoak. Zuek planifikatu zenuten dena: iruzurra, engainua, gezurra... kaka zaharra, simaur pila galanta zarete denontzat!» (185. or.) dio Pellotek amaiera aldean Marón kapitainari traizioaren berri ematean. Baina, hori baino ironikoagoa, iradokitzaileagoa dugu nobelako azken esaldia: «Gizon baten anbizioak hondoa jo zuen 1815. urte nahasi hartan, eta aro berri bat piztu zen Europa osoan. Hori bai, bizirik zeudenentzat bakarik». (187. or.)

Xabier Etxaniz Erle

sekuentziazioan badira istorio paraleloak (Petit komisarioari jazotakoak, esaterako). Horretaz aparte, narrazioa, estiloa oso klasikoa da... bai eta ederki lortua ere.

Narrazioaren eta elkarrizketen bidez emaniko informazioa dugu, lehena girotzeko, gertakarien berri emateko; bigarrenak, bete-betean sartzeko irakurle abenturetan. Eta alde horretatik, zinemagintzaren eragina ere nabaria da kontatzeko orduan. Bestela, ikusi ondorengo pasarte hau: «Thierry kapitaina eta bere gizonak konturatu orduko otso armatuz bete zen korbetaren kuberta. Txopatik etorri zitzairen lehen tiroa, eta kulebrinaren zartakoak infanteriako lau gizon utzi zituen tripaz gora, eta beste pare bat aienaka. Pellotek matxeta erakutsi eta papar parean jarri zion Thierry gizagaixoari, eta bere inguruan zeuden beste ofizialek ez zuten zirkinik egin. Minutu erdian gizon oldea zuten ontzi barruan. Batzuk txikotei oratu eta balantza kalkulatu batekin korbetaren gibelean plantatzen ziren; beste batzuk zuzen-zuzen egin zuten salto barandatik barandara, harrabots eta txilioen artean». (121. or.)

Pasarte horrek, gainera, erakusten digu Mendizabalek ederki erabili dituela kortsario eta piratei buruzko iturriak, bere

Santiago bidean

Joxemari Iturralde
Ilustratzailea: J. M. MATA
Ibaizabal, Bilbo, 2007


Bizitza bidea denean

«Erabakiak hartu egin behar dira» esaldiarekin hasten da Joxemari Iturraldearen azken nobela hau. Izenburuak berak dioen bezala Santiago bidearen inguruan eraikitako nobela dugu. Protagonista, hamazortzi urte betetzear dituen gazte bat, Santiago bidean abiatzen da Orreagatik eta berehala, lehen pertsonan narraturik dagoen istorioan, barneratuko gara bidean... eta protagonistaren bizitzan.

Ettxeko egoeratik eta bere egunerokotasunik ihes egin nahian, edo pentsatzeko, lasaitzeko eta bakarrik egoteko tarte bat hartu nahian, gure protagonista Orreagatik abiatzen da eta bidearen narrazioan Iturralde historia kontuak, toponimiarenak, gertakariak, protagonistaren gogoetak, sentimenduak, albiste bitxiak, herri, monumentu eta lekuen deskribapenak... konbinatu ditu maisutasunez narrazio arin eta entretenigarria lortuz. Are gehiago, bada, erabat lortu ez arren, misteriozko historia bat ere irakurlea harrapatzarren eraikitako sare honetan.

Edozein modutan bidea bera eta protagonistari jazotakoak dira nobela honen oinarri sendoenak. Irakurleak bidea egiten laguntzen duen sentsazioa du; eguneroko ibilaldian parte hartzen duela, bidaiaren plazerean eta nekean bat egiten baitu protagonistarekin (eta horretan badu eragina nobela lehen pertsonan idatzita egoteak). Egunez egun eginiko ibilaldietan hainbat herri, ermita, txoko eta paisaia ezagutzeko parada izango dugu (baita bertako hamaika istorio entretenigarri entzuteko ere, hala nola Eunate eta tenplarioena, Papamoscasena, Los Arcoseko uraren kalitatearena, eta abar); baina, arestian aipatu bezala *Santiago bidean* hau protagonistaren historia dugu. Gurasoen eztabaidetatik urrundu eta berarentzat tarte bat hartu nahi duen gaztearena, baina baita bere lagunekin

14 +



Liburuak, gure artean ohikoa ez den luzera duenak, oso amaiera irekia du. Bidaiaren erdian, Burgosko herri batean, Renata eta haren lagunengatik atxilotuak berri izan ondoren, protagonistak bakarrik bidean aurrera egitea erabakitzen du: «Eguzkiak bere aurpegi alai azaldu nahi zuen zeruan. Santiago Bidean nengoen berriz ere, indar-berrituta, animatuta. Ez nuen atzerantz begiratu behar. Ultreya!» (263. or.). Eta ziklo bat amaitu den bezala, liburuak lehen esaldira itzularazten gaitu Iturralde, «Erabakiak hartu egin behar dira», eta irakurlea, azken orrialde zuria ikusi ondoren eta agian liburu honen bigarren zati baten zain, bere baitara itzultzen da, liburuarekin batera eginiko bidaiaz gogoeta egiteko, protagonistari harekin batera gozatu eta sufritu ondoren Bide on! opatuz.

Xabier Etxaniz Erle

eta gainerako erromesekin dituen harremanena eta, neska batzuekin –Susana bere neskalagun ohiarekin eta Renata bidaiaren ezagutu duen holandarrarekin– dituen harremanena. Alde horretatik aipatzekoak dira sexu harremanen deskribapenak, gazte literaturan hain urriak, eta Iturralde ederki azaldu dituenak. Ikusi, adibide gisa, protagonistak Susanarekin eginiko paseo batean jazotakoa kale estu batean: «Egia esateko nire galtza motzak bakarrik jausi dira lurrera ia inoren laguntzarik gabe. Izan ere, ordurako zakila guztiz tente neukan, erabat harrotua, gorantz apuntatzen eta zulo baten bila. Berehalaxe jaitsi ditut galtzontziloak eta ez dugu denbora gehiegi galdu nikia erantzten. Bere kuleroak ere ez zeuden normalean egon ohi diren lekuan, eta bidea erabat libre aurkitu dut ordurako.

Atzera eta aurrera hasi gara segidan eromenez, biok zutik aldika hormaren kontra eta aldika atetzarraren aurka geure gorputzak kolpatuz. Susanaren bular handi, borobil oparoak aurkitzen nituen erasoaldi bakoitzaren ostean leungarri gisa [...] Sartu-irten horrek, ordea, bere akabera izan du noizbait, bai nire zakilarentzat behintzat». (77-78 or.)

Seximenduz


Fernando Morillo
Elkar, Donostia, 2007

Autolaguntza liburua

Gabonetan, gazteentzat izan daitezkeen li liburu irakurri nituen: Xabier Silveiraren *A las ocho en el Bule* eta Fernando Morilloren *Seximenduz*, eta biek ere egonezin handia eragin zidaten. Silveirarena, aukeraketa linguistikoa gorabehera, gaiगतik hartu nuen, gazteentzat oso gutxitan erabili den kale borrokaren kontua dakarrelako; baina argumentuak ez zidan ezer berririk eskaini, hau da, kale borrokaz egunkarietatik daki-guna baino intrahistoria gehiagorik ez nuen topatu; ideologia ere ez da existitzen, ez dago tesirik, gauzak diren bezalakoak dira, eta jokamolde manikeo horretan ez dago zalantzarako aukerarik, kritika zein autokritikarako zokorik, dena mugatzen da «*acción-reacción*» jokora, dena da droga, sexua eta rock-a ordezkatzera datorren sirenen musika edo kale borroka. Zoritxarrez, nobela alferrik galdutako aukera iruditzen zait, are gehiago –eta hau ere ez dut pizten den eztabaidan ikusi– gaizki idatzita dagoelako, oso testu gorabeheratsua delako, arrazoirik gabe bat-batean oso hizkera arruntetik panderterenera pasatzen dena, koherentzia literario eta estilistikorik gabea.

Silveirarenean sexua berez-berez dator, ia errazegi; Morillorenean, baina, sexua guztiz da problematikoa, eta topiko batean oinarritzen da: Euskal Herrian txortan egitea ia miraria da; kontua da, hala ere, protagonistak 23 urteko gazteak direla...

Liburuaren izenburua hauxe da: «Seximenduz. Sentimenduz. Nahasmenduz. Zer arraio egin behar da hemen ligatzeko?». Eta liburua norentzat den eta norentzat ez den argitu ondoren, irakurle gaztearen konplizitatea bilatzen duen sarrera hutsal bat dauka: irakurri bospasei orrialde eta gustatzen ez bazaizu leihotik bota, irakurri duzun guztia benetan gertatua da, guztia bizipen bakarra izan ezik («Bakarra. Egin apostu, nahi buduzue –nik ez dizuet esango zein den») eta kontua da idazleak ironia



putapenikoa, de puto kulo, porkulo hartu, deskojonatu erabiliz. Benetan uste dut irakurle gaztea gutxietsi egiten dela halako lanekin, berez prestigio handiegirik ez duen generoaren kaltetan.

Eta pena da, batez ere Morillok bada-kielako gazteengana hurbiltzen, orain arte idatzitako lanetan behin baino gehiagotan erakutsi digu horretarako dohainik, eta irakurleon mesederako ez ahal du bertan goxo egingo. Pentsatzen dut idazleak nobela bati ekin aurretik hainbat material bilduko dituela, eta uste dut Morillok material horiek bere horretan edo, asko jota, apur bat ordenatuta eman dizkigula, benetako obra literario bat mamitu gabe, ezer berezirik proposatu gabe. Literatura bakarra, zoritxarrez, liburuko aipuetan baino ez dator: Rilke, Gil de Biedma, Leonardo da Vinci.

Laura Sagastume

aipatzen duela, eta txantxa, baina hasierako lerroetatik sumatzen den umore erraza nagusitzen da gero ere, hitz joko hutsak, eta ironiaren arrastorik ere ez.

Harrigarria bada ere, liburuak Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* ekarri dit gogora. Elkarrizketa da nagusi, eta hartan nekazal munduaren bertuteak nabarmendu nahi ziren bezala, hemen amodioan bizirik irauteko eta irteteko aholku segida bat ematen zaigu, hainbestearaino non autolaguntza liburu horietakoa baitirudi. *Peru Abarka*-n ez dago ekintzarik, eta hemen ere ez, baina elkarrizketa hutsa da, protagonistetan apenas garapenik duena, gatzbakoa, egiturak behartutakoa baina irakurleon intriga pizten ez duena. Eta elkarrizketarekin batera, hainbat aholku eta kasu praktiko fitxetan emanak, ligatzen duenak ligatzen ez duenari eskainiak, hainbat lezio edo, egilearen esanetan, sentimenduen kartografia. Eta asko esatea da hori. Epilogoko moduko fitxak ere hotz utzi gaitu, lekuz kanpo balego bezala, arinkeriaren ondotik halako trszendentzia bat edo bilatu nahi balu bezala. Estilo aldetik, azkenik, erraza da irakurlearen konplizitatea lortzea kaben-zotz, kabenlaputa, kabenlaletxe, puto amo,

Sommer jaunaren istorioa

Patrick Süskind

Ilustratzailea: SEMPÉ

Erein, Donostia, 2007

Oroimenean bizikletaz

«Oraindik zuhaitzetara igotzen nintzen garaian –asko, orain dela asko, urte asko eta urte hamarkada asko, ez nuen metro bat baino askoz gehiago neurtzen, zapatak hogeita zortzikoak nituen eta oso arina nintzen, oso, hegan ere egin nezakeen orduan...». Hitz hauekin hasten da *Sommer jaunaren istorioa* nobela laburra, baina narratzailea ez da Sommer jaun bitxi hori, ezpada haurtzaroan hura etengabe eta nonahi beti ibilian ikusten zuen mutikoa baizik, mutiko orain gizondua. Oroimena da orain hegan dabilkiona eta oroimenak Catalina neskata xarmanta ekarriko dio gogora, edo Funkel andereñoa –piano irakaslea bera–, edo bere familia, eta horra ondorioa: «mundu osoa nazkarkeria bidegabe, gaizto, zital bat besterik ez zela. Eta besteak ziren txarkeria horren errudun».

Hala bada, munduko bidegabekeriak estilo xaloan eskaintzen zaizkigu, behin baino gehiagotan irribarre konplizea eraginez; baina denboraren poderioz haiekiko jarrera aldatu egingo du narratzaileak, heldutasunera iristen hasia baita: «Metro eta hirurogeita hamar neurtzen nuen gutxi gorabehera, berrogeita bederatzi kilo pisatzen nuen eta berrogeita bateko zapatak erabiltzen nituen». Nolabait ere bizikleta izan daiteke aldaketa horren ikurra: hasieran mutikoak ez daki ibiltzen, edozein oztoporen aurrean –izan txakur bat, izan oinezko bat– ibilgailutik automatikoki jaitsi beharra dauka, eta gainera harrigarria zaio nola ibili daitekeen bi gurpil ezdeus horien gainean; amaieran, baina, txirrundulari iaioa agertuko zaigu, heldu.

Baina askoz ere gauza gehiago esan behar da istorioa laburbiltzeko ahalegin frustratu honen ondotik. Alde batetik, adierazi behar da liburua, kasualitatez, *Perfumea* eskal itzulpenarekin bateratsu kaleratu dela, baina beherala gaineratu beharra



dago are harriagarriagoa dela *Perfumea* nobela gordina eta Kontrabaxua antzerki- ezagun- jostarina idatzi zituen egileak Sommer jaunaren istorioa itxuraz xalo eta tolesgabea idatzi izana, hain dira gai eta erregistro desberdinak. Baina, izan, hala da, eta, kasualitateak areagotuz, hara non itzulpenarekin batera antzezpene ere eskaini berri zaigun, hain zuzen ere igaro berria den Durangoko Azokan. Baina goazen atalka.

Batetik, esan beharra dago liburua Lourdes Oñederrak itzuli duela, eta itzulpenak ongi jasotzen duela liburuari darion ahozko kutsua –esaldi luzeak, tarteka amaigabeak–, natural garatzen dela, fresko geratzen. Bestetik, gaineratu beharra dago Jean-Jacques Sempé-ren ilustrazioekin datorkigula eta gutxitan bezala apurtu egiten dela gazte literatura berdin ilustrazio eza binomioa. Testu ederra + ilustrazio ederrak + edizio ederra = plazera (plazer horrexek zenbatetan ez ote digun gogora ekarri Bernardo Atxagaren estilo naif hura –*Bi letter, Xola bereziki*–; zenbatetan ez ote garen gogoratu Mikel Valverderen ilustrazioekin...).

Baina, esan bezala, liburua ikusi ere ahal izan genuen Durangon. Antza, obra katalanez antzeztua izan da azken hamahiru

urte honetan eta Jose Ramon Soroizek eskal oholtzetara ekarri nahi izan zuen, eta baita lortu ere Xicu Masóren zuzendaritzapean. Antzezpene bakarrizketa da, itxuraz, baina Oñederraren itzulpenari distira ateratzen dio eta irakurketan eginiko irribarreak barre algarak bihurtzen dira behin baino gehiagotan. Soroizek bikain eskaintzen dizkigu narratzailearen erregistro desberdinak –haur, heldu...–; eszenografia ere oso egokia da eta, azkenik, Jabier Muguruzaren musikak lagundu egiten du oroimen ariketa horiek biziarazten, bizikletaren orekari eusten (Atxaga aipatu dut arestian, eta hain zuzen ere haren poema bat –«Iritziak euriaz»– ekarri dute hona, ausardiaz, baina ezin egokiago, narratzaileari ere denboraren joanak nola eragiten dion erakustearren).

Gazte literatura onean eskatxo gabiltzan honetan, oso albiste ona iruditu zaigu honakoa, aukeran, testutik nahiz eszenategitik datorkiguna. Eta testu ederra + edizio ederra + antzezpene ederra = plazere ezin hobea.

Laura Sagastume



Egin zaituz Galtzagorri Elkarteko bazkide

1. Jarraian aurkezten dugun fitxa bete eta ordainketa-agiriarekin batera, gure helbidera bidali:

Galtzagorri Elkartea

Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943471487

behinola@galtzagorri.org — www.galtzagorri.org

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....Posta-kodea:.....

Telefonoa:.....faksa:.....

e-maila:.....

Ogibidea:..... lantokia:.....

2. Urteko bazkide-kuotaren ordainketa egin (32 €)

Galtzagorri Elkartearen kontu-korrontean dirua sartuz:

CAJA LABORAL – EUSKADIKO KUTXA

sukurtsala: Loyola 15 (20.014 Donostia)

kontu-zenbakia: 3035 0242 6 8 242 0 00247 1

Galtzagorri Elkarteko bazkide guztiak doan jasoko dituzte
Elkartearen argitalpen guztiak.